

*Pekatxoak, Ich liebe dich,
Izpiritua ikusten, aluzinatzen, imajinatzen,
Hegan egiten zekien neskatoa, Hondartza eguna,
Ez dago lagun bat bezalakorik, Aitonaren makina,
Arkatza eta borragoma, Nire amonaren ohorez,
Anai-arrebak betirako, Gailur gorena zapaldu.*



Teodoro Hernandorena

XI. ipuin lehiaketa

Zizurkil, 2013

*Pekatxoak, Ich liebe dich,
Izpiritua ikusten, aluzinatzen, imajinatzen,
Hegan egiten zekien neskatoa, Hondartza eguna,
Ez dago lagun bat bezalakorik, Aitonaren makina,
Arkatza eta borragoma, Nire amonaren ohorez,
Anai-arrebak betirako, Gailur gorena zapaldu.*



Teodoro Hernandorena
XI. ipuin lehiaketa
Zizurkil, 2013

© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: SS -652-2013

Fotokonposaketa eta inprimaketa: **antza** komunikazio grafikoa

A maila

- 1go Saria: **Aitonaren makina**
Gorka Duran 7
2. Saria: **Hegan egiten zekien neskatoa**
Nerea Esteban 9

B maila

- 1go Saria: **Hondartza eguna**
Mirari Ucin 10
2. Saria: **Arkatza eta borragoma**
Unai Otxoa 13
- Aipamena **Ez dago lagun bat bezalakorik**
Maddi Etxeberria 15

C maila

- 1go Saria: **Anai-arrebak betirako**
Maider Arano 17
2. Saria: **Nire amonaren ohorez**
Oihane Moreira 23

D maila

- 1go Saria: **Gailur gorena zapaldu**
Ariane Obineta 28
2. Saria: **Ich liebe dich**
Ariane Obineta 38

E maila

- 1go Saria: **Izpiritua ikusten, aluzinatzen, imajinatzen**
Ixiar Irulegi 49
- 2 Saria: **Pekatxoak**
Maider Garin 57

Hitzaurrea



Agur t'erdi:

Aurtengoan ere antolatu eta saritu dugu Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketa, hamaikagarren aldiz antolatu ere. 2002an berria zen Kultura eta Euskara Sailsa udalean, eta lehiaketa hau martxan jarri zuen arrakastarik izango zuen jakin gabe. Nahikoa da esatea hamaikagarren edizioa dela oraingoa.

Maite Toledo eta Antton Irusta izan dira A eta B mailatako ipuinak irakurri, aztertu eta irabazleak aukeratzeko lana egin duten idazleak. A mailako 53 ipuin eta B mailako 159.

Castillo Suarez eta Angel Zelaietak C, D eta E mailetakoeekin egin dute lan bera. C mailako 56 ipuin, D mailako 40 eta E mailako 6.

314 ipuin. MILA ESKER. Zuen partaidetzarik gabe ezingo litzateke ipuin lehiaketa hau garatu, ezta hamaikagarren urtez gauzatu ere. Mila esker idazleei, irakasleei, gurasoei, lagunei... Ziur nago lanak aurkeztu dituzten idazleek zuen laguntza eta babesa izan dutela. Eta eskerrik asko ipuinak irakurri, aztertu, baloratu eta saridunak izendatu dituzten epaimahaikideei, osatu behar izan ditugun bi epaimahaietako epaimahaikideei.

Teodoro Hernandorena bertsozale zizurkildarraren izena darama ipuin lehiaketa honek. Ahozko literaturaren eta, oro har, euskararen alde egin zuen lana eskertzeko modu xume bat da honako hau, omenaldi txikitzat ere har daitekeena. Bere izen ona zabaltzea lortzen badugu gure helburua ederki beteko dugu. Lehena eta oraina lotzea da gure hizkuntza eta literaturaren alde egin dezakegun ahaleginetako bat.

Lehiaketa deialdi hau urtero luzatzearekin euskal literatura lantzea da gure xede nagusia, euskaraz idatzi zein irakurtzeko zaletasuna zabaltzea. Aurtengoan adina aipatu nahi genuke. Idatzi- irakurtzeko adin mugarik ez dago, ipuin lehiaketa honetan parte hartu dutenek argi erakutsi diguten bezala. 6 urte ditu gazteenak, 63 helduenak. Aipagarria benetan!!!

Ariane Obineta idazlea ere aipatu behar dugu hitzaurre honetan. Izan ere, ipuin lehiaketa honen aurreko edizioetan gertatu ez den bezala, berak irabazi ditu D mailako bi sariak.

Liburu hau zure eskuartera iritsi bada, ez galdu aukerarik. Liburu honetan 11 ipuin jasotzen dira. 10 irabazleak eta aipamen berezia jaso duen hamaikagarrena.

Ireki liburua, denbora apur bat lasai-lasai hartu eta egun irakurtzea eta idaztea gutxi batzuen eginkizun bada ere, irakurritz goza dezazun desio dizut.



Jose M^oLuengo Zapirain
Zizurkilgo Alkatea



■ A. maila • 1. saria

GORKA DURAN

Aitonaren makina

Baziren behin hiru ume, bi mutil eta neska bat. Alex, Nik eta Haizea. Beraien aitonak gauza bat ezkututzen zuela bere etxean konturatu ziren eta aitonak zera esan zien hiru umeei:

– Mutilok, etor zaitezte hona!

Aitonak satora eraman zituen Alex, Nik eta Haizea. Sotoa iluna eta armaiarma sarek beterik zegoen eta bertan zera esan zien:

– Hirukote, begira ezazue hemen dudan tresna hau. Bidaiatzeko makina bat da.

Umeak txunditurik geratu ziren eta aitonak barrura sartzeko esan zien. Nikek botoi bat sakatu zuen eta, konturatu gabe, bidaiatzeko makina martxan jarri zen. ZZZZZZ! Soinua eginez Egiptora abiatu ziren gure lagunak.

Nilo ibaiaren ondoan lurreratu ziren bainan ez zekiten non zeuden. Piramideak eta esfingeak ikustean, Egipton zeudela konturatu ziren. Haizeak bitxi boteretsu bat aurkitu zuen, lepoko eder bat. Berak lepokoa jarri eta egiptoar guztiek Haizeak esaten zuen gutzia egiten zutela konturatu ziren.

Dromedario batean Faraoiaren jauregira joan ziren. Bertan, eskribak, esklabuak zeuden. Faraoiak zera esan zion Haizeari:

- Kaixo, ni Anubis naiz, eman lepoko hori neskato.
- Ez, ez dizut emango – esan zion Haizeak.
- Zaintzaileak! Harrapa ezazue neskato hau! – esan zuen Faraoiak.

Gure lagunek korrika alde egin zuten eta egiptoar batekin egin zuten topo. Bere etxera sartzeko esan zien eta beraiek sartu egin ziren. Egiptoar honek, Faraoiak zergatik nahi zuen lepokoa azaldu zien. Lepoko honekin mundu guztia menpean izango zuela esan zien eta alde egiten lagundu zien. Mozorro batzu eman zizkien eta egiptoarraz mozorroturik Nilo ibaira joan ziren beraien bidaiatzeko makinara sartzeko.

Bidaiatzeko makina martxan jarri zuten eta ZZZZZ! etxera bueltatu ziren. Lepokoa seguru zegoen aitonaren etxean eta aitonak puskatu egin zuen gizon gaiztoaren batek ez hartzeko eta mundua seguru egoteko

Alex, Nik eta Haizea osos pozik gelditu ziren.



■ A. maila • 2. saria

NEREA ESTEBAN

Hegan egiten zekien neskatoa

Bazen behin neskato bat hegan egiten zekiena. Oso zintzoa zen eta aita eta amarekin bizi zen.

Behin batean zeruan zebilela txori batekin topo egin zuen eta neskatilak galdetu zion:

– Nola duzu izena?

Eta txoriak erantzun zion:

– Nik Pipi izena dut.

Biak lagunak egin ziren. Baina behin haserretu egin ziren eta, bapatean, beste txori bat agertu zen eta txori horrek esan zien ez haserretzeko, oso lagunak baitziren eta kasu egin zioten txoriari eta pakea egin zuten.

Egun batean hitz egiten zekien laino bat etorri zitzaien eta lainoaren lagunak egin ziren.

Handik aurrera neskatoa, bi txoriak eta lainoa oso lagunak izan ziren eta hori ospatzeko festa handi bat antolatu zuten denek.



■ B. maila • 1. saria

MIRARI UCIN

Hondartza eguna

Baziren behin bi anai- arreba, Mi eta Xa izenekoak.

Mi 12 urteko neskatxa bat zen, ile beltza zuen eta begi marroiak. Asko gustatzen zitzaion kirola, batik bat, futbola.

Xak, berriz, 10 urte zituen, honek ere ile beltza zuen baina begi urdinak. Oso beltzarana zen, izan ere, beti eguzkitan ibiltzen zen. Honi ere, kirola asko gustatzen zitzaion eta oso trebea zen.

Biek oso gustuko zuten hondartzara joatea eta txalupan ibiltzea.

Udako egun eguzkitsu batean gurasoek hondartzara joatea erabaki zuten. Hondartzara iritsi orduko lekua aurkitzen hasi ziren eta, hara eta hona ibili ondoren:

– Begira! Hor txoko bat dago! Goazen jartzera! –esan zuen amak.

Ez zen oso handia baina ez zegoen beste aukerarik.

Mik eta Xak, eguzki krema presaka igurtzi eta, segituan, txalupa bat alokatu zuten. Txalupa txuria zen eta, erdian, marra gorria zuen. Itsasoratu eta laister, biei logurea sartu zitzaien eta, konturatu gabe, loak

hartu zituen. Lo zeudenez, ez ziren konturatu korronteak itsas zabalera eramaten zituela.

Esnatu zirenean pirata batzuk ikusi zituzten beraiek harrapatu nahian.

– Piratak!!! Goazen hemendik!!! – esan zuten oihuka.

Piraten barkua egurrezkoa zen eta buru hezur handi bat zuen marraztuta banderan.

Ihes egiten ahalegindu ziren. Azkar– azkar arraun egin ondoren piratak atzean utzi zituzten eta uharte batera iritsi ziren. Uharteak hondartza bat zuen palmeraz betea, baita sumendi bat ere.

Uharteak oso polita zirudien baina batek zekien zer zegoen barruan!

Mik eta Xak uhartea esploratzea erabaki zuten. Oinez hasi eta berehala, maitagarri bat ikusi zuten.

Maitagarriak Pinpirin izena zuen eta oso txikia zen. Berdez jazten zen beti, ile horia zuen eta begiak zerua bezain urdinak.

– Zer zabilzate hemen? – galdetu zien Maitagarriak

Gertatutako guztia azaldu zioten.

– Etxera itzuli nahi baduzue, deabrua garaitu beharko duzue, baina kontuz!!! Deabruaren janari bihurtu zaitezke.

Deabrua aurkitzen hasi baino lehen, Pinpirinek zilarrezko espata bat eman zion Xari eta urrezko arku bat Miri. Berehala deabruaren bila hasi ziren.

Denbora asko ibili ziren baina ez zuten deabruaren arrastorik ere aurkitu. Xa, oso nekaturik, zuhaitz baten azpian eseri zen.

– Nor dago nire gainean – entzun zuen halako batean.

– Nor zara? – galdetu zuten biak harriturik

– Handikote izeneko zuhaitz magiko bat naiz –esan zuen ahots lodiak– eta deabruaren kobazuloa aurkitzeko mapa bat dago ezkutatu-ta nire sustraien artean.

Mik eta Xak eskerrak eman zizkioten eta aurrera jarraitu zuten. Iriste-ar zeudenean, karramarro erraldoi batzuk ikusi zituzten. Haiekin burrukan hasi ziren eta batek Xa harrapatu zuen. Orduan Mik, bere azken geziarekin ondo– ondo apuntatu eta karramarroa erdi– erdian jo zuen.

Beldurra gorputzean zutela, deabruaren kobazulo aldera jarraitu zuten. Halako batean, iritsi ziren eta oihu egin zuten:

– Deabrua!!! Atera kanpora!!!

– Nor da hor? –erantzun zuen barrutik– Nola ausartzen zarete niri oihu egitera? Ni naiz uharte honen jabea eta zuek, laister, nire janaria izango zarete.

Borrokan hasi ziren. Luze aritu ziren. Baina azkenean Mik eta Xak irabazi zuten

Orduan Pinpirin agertu zen eta hitz magikoak esan zituen: *“Ume hauek deabrua garaitu, euren saria etxera bueltatu”*

Bi umeak txalupan esnatu ziren, bere hondartzako itsasertzean.

Gertatutako guztia ametsa izan ote zen? Elkarri begiratu eta guraso-engana joan ziren.



■ B. maila • 2. saria

UNAI OTXOA

Arkatza eta borragoma

Baziren behin arkatza eta borragoma. Arkatzak Staedtler izena zuen eta borragomak Milan. Biak anaiak ziren eta estutxe berdinean bizi ziren. Milan langilea zen eta Staedtler berriz, alperra eta bihurria zen. Arkatzak orduak pasatzen zituen testutxo motzak idazten. Milanek berriz, berak idatzitako apurra behin eta berriz borratu egiten zuen. Horregatik, beti borrokan ibitzen ziren.

Egun baten arkatzak haserretuta, alde egin zuen estutxetik eta bere bizilagunarengana joan zen tinbrea jotzera. Bizilaguna Txorroskilo jauna zen.

Txorroskilo jaunak atea ireki zion eta Staedthler-ek galdetu zion ea bazeukan geratzea bere estutxean aste batzuez. Txorroskiloak baietz erantzun zion. Horrela, arkatza estutxean sartu eta Txorroskilok zer gertatu zitzaion galdetu zion. Honek, bere anaiarekin pasatakoa kontatu zion. Milan beti berak idazten zuena ezabatzen ibiltzen zela eta kokoteraino zegoelako alde egin zuela bere ondotik.

Baina, estutxe bertan beste arkatz bat zegoen lana egiten zuena eta Staedthler-ek ezer egin gabe pasatu beharko zuela eguna argi utzi

zior hasieratik. Hasieran pozik jarri zen. Egunak pasa ondoren aldiz, aspertzen hasi zen egun guztian ez zuelako lanik egiten.

Borragoma ere, hasieran oso pozik zegoen. Oso lasai eta borrokan aritu gabe egoten zelako egun osoan.

Egun batean, Staedthler-ek beste arkatzari baimena eskatu eta idatzi labur bat egiten hasi zen. Aspaldi ezer idatzi gabe zegoenez, akats bat egin zuen. Akatsa zuzendu nahi zuen baina ezin, bere anaia borragoma falta zen.

Biek elkar behar zutela konturatu ziren horrela. Egunean bertan biak elkartu eta besarkatu egin ziren. Beraien estutxera bueltatu eta Stadler eta Milan handik aurrera biak poz pozik bizi izan ziren. Orain elkar ulertzen dute eta borragomak, lan egin aurretik arkatzari baimena eskatzen dio.



■ B. maila • **Aipamena**

MADDI ETXEBERRIA

Ez dago lagun bat bezalakorik

Behin bazen Xaxa izeneko otso bat. Oso jatorra zen eta 5 urte zituen. Bere aita eta amarekin bizi zen, ahizpa txiki bat ere bazuen, Xaxi zuen izena, eta hiru lagun oso jator ere bai: Xixa, Nene eta Txiki. Haiek ahal zuten guztia egiten zuten Xaxagatik, baina Xaxa triste bizi zen. Horren arrazoia, Xaxaren amak, Hiru Txerritxoak jateko ahalegina egiten zuela. Geroztik Hiru Txerritxoek oso gaizki tratatzen zuten. Hori gutxi balitz, bere aitak Txanogorritxo jan zuen eta bere osabak Zazpi Antxumeak.

Hurrengo egunean, eskolara joan zenean, Xixa laguna aurkitu zuen lehenengo. Berari gehien gustatzen zitzaion gauza egiten, Lo! Oso mutil alferra baita. Ondoren Nenerekin elkartu zen eskolako liburutegian. Nene oso neska bizkorra baita, beti dago liburuak irakurtzeko prest, baita mundua bukatzeko zorian egongo balitz ere. Txiki laguna berriz oso mutil jator eta kirolaria da eta handitzen denean triatloi gogor-gorretan parte hartzeko asmoa du.

Haiek ezagutu zituen egunean, otso txiki- txikia zen eta orain arte ez dira banandu .

Biharamunean eskolan irakasleak ipuin klasikoak kontatu zizkien, haien tartean, Txanogorritxo, Hiru Txerritxoak eta Zazpi Antxumeak kontatu zituen. Lehen hitza esaterako bihotzean tristura sentitu zuen Xaxak, oso gaizki sentitu zen. Ikasgelatik ateratzean Hiru Txerritxoak, Zazpi Antxumeak eta Txanogorritxok Xaxari iseka egiten hasi ziren, Xixa, Nene eta Txiki berriz ez ikusiarena egiten hasi ziren.

Orduan Xaxa bakar-bakarrik geratu zen. Norak ikusi zuen arte. Nora kilker bat zen, txintxoa, alaia eta polita. Ile beltza zuen eta begi berdeak. Segituan egin ziren lagun eta Nora zen Xaxa kontsolatu nahian zebilen bakarra. Hala esan zion:

– Ez triste jarri, bilatuko diogu soluzioa, lasai. Norak lagun asko zituen arren, ez zuen beraiekin egoteko denborarik hartzen, Xaxa lasaitzea bakarrik zuen buruan.

Laster bururatu zitzaion ideia bat. Nora oso bizkorra baita eta oso lagun ona. Pentsatu eta egin. Behin baino gehiagotan ipuinek alaitzen zuten Nora, berak Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketan urtero hartzen zuen parte eta oso ipuin politak idazten zituen eta bat idatzi zion Xaxari.

Hurrengo egunean Xaxari eman zion eta asko gustatu zitzaion, oso polita bait zen. Handik aurrera Xaxa triste zegoenean ipuin hura irakurtzen zuen eta handik aurrera poz-pez ibiltzen zen.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA KALABAZAN ETA ATERA DADILA HERRIKO PLAZAN.



■ C. maila • 1. saria
MAIDER ARANO

Anai-arrebak betirako

- Libe! Sartu! – deitu zion amak.
- Ajji. Zer nazka! Zer da hori? Zimurrez beteta dago! – Libek.
- Zure ahizpa txikia da, Udane – erantzun zuen amak.

Libek nazka aurpegiarekin begiratzen zuen ume txiki hura. “Nola izan zitekeen gauza hori bere ahizpa?” pentsatzen zuen neskatoak. Ez zuen bere antzik. Libek gorroto zituen ume niniak.

– Ama, badakizu ez ditudala batere gustuko umeak. Zergatik eskatu diozu zikoinari beste bat ekartzeko, ni edukita? – esaten zion neskatzak haserre.

Libe 7 urte besterik ez zituen neskatzak alai eta mugitua zen, eta ez zuen oso ondo ulertzen nola jaiotzen ziren umetxoak. Bere ile hori motza, gaizki orraztua zegoen. Ez zegoen oso kontentu gaur. Bere ama, okupatuta zegoen Udaneri esnea ematen, eta ez zion kasu handirik egiten.

Egun pare bat pasa ziren, eta bi neskatzak eta haien gurasoak ospitaletik etxerantz abiatu ziren. Libe haserre zegoen oraindik, eta ez zien bere gurasoei hitz egiten.

– Maitea, zer gertatzen zaizu? – galdetu zion aitak.

Libek buelta erdia eman zuen, eta paretaruntz begira jarri zen.

– Utzizu, egun batzuk daramatza inori ezer esan gabe. Udane jaio zenetik asko aldatu da, eta triste eta haserre doa leku guztietara –esan zuen amak nahiko larrituta.

– Ez duzue ulertzen! Gauza hori mundura etorri denetik niri ez didazue kasurik egiten. Ez da batere justua! –garrasi egin zuen Libek, gurasoak esaten ari zirena entzuten baitzegoen.

Neskatxa negarrez hasi zen, eta korrika batean atera zen.

Honen gurasoak, oso kezkatuak, bere atzetik joan ziren. Udane, bitartean, lasai– lasai zegoen egongela erdian eserita, ezer gertatzen ariko ez balitz bezala.

Ama sukalderantz abiatu zen, eta hozkailua ireki eta gero laranjazko zuku bat eta bizkotxo zati bat hartu zuen. Ondoren etxetik atera zen, eta hantxe zegoen Libe atearen ondoan.

– Nahi al duzu hau? – galdetu zion amak.

– Ez, haserre nago! – erantzun zuen tinko alabak – eta ez dut ezer nahi zuengandik.

Amak barre egin zuen. Alabak begiratu, eta bekainak okertu zituen seriotasun aurpegia jarriz. Bapatean amari zukua eta bizkotxoa eskutik kendu eta jaten hasi zen.

– Banekien nik, nahiko zenuela... – esan zion amak.

– Bai, baina bakarrik hau, eta gose nagoelako bakarrik – esan zuen Libek.

Amak berriro irribarre egin zuen, eta esan zion tonu lasai batean:

– Begira, Libe, nahiz eta orain Udane egon gurekin, aitak eta biok asko maite zaitugu. Ez pentsa alde batera utziko zaitugunik. Orain beste ume bat dago etxean, eta laguntza gehiago behar du, baina horrek ez du esan nahi zu ez zaitugunik lagunduko.

– Berdin zait esaten duzuna. Ez dut nahi ume hori gure etxean – erantzun zion neskatxak fuerte.

Ama barrez lehertzen sartu zen etxera, eta ez zuen ezer gehiago esan. Libe, oraindik, bere askaria ari zen jaten.

“Ni ez nago prest beste ume batekin bizitzeko” esaten zion etengabe bere buruari.

Bat batean zerbait bururatu zitzaion, eta korrika joan zen bere logelaruntz. Han, bere maleta arrosa atera, eta gauzez betetzen hasi zen. Goxoki mordoia, bi kamiseta, bi pare galtza eta bisera. Eskuan beti bere pelutxeko hartza zuelarik.

Gaueko hamaikak pasata ziren, eta Libe ia loak hartuta zegoen. Baina esna egon beharra zuen. Gurasoak lotara joaterakoan, etxetik joango zelako. Denbora dezente igaro zen, eta behingoz gurasoak ohera joan ziren.

Libe hanka puntetan hasi zen ibiltzen, bere hartza eta maleta bizkarrean zituelarik. Hotza handia egiten zuen kalean, beraz kontu handiz berriro bueltatu egin behar izan zuen bere logelara txamarra bat hartzera.

– Ea zortea dudan, eta familia oso on batek etxean sartzen nauen –esan zuen baxu-baxu gurasoak esna ez zitezen.

Jadanik atera zen etxetik neskatxa alai hura, eta ordu erdi bazeraman ibiltzen kaletik. Goseak zegoen, eta hotza zuen. Nola iraungo zuen hainbeste denbora kalean inor gabe, ezin bazuen iraun ordu erdi?

Bapatean, zubi bat ikusi zuen, eta pentsatu zuen gaua han igarotzea ideia ona izango zela. Pelikula asko ikusi zituen, eta handik atera zuen etxetik joateko ideia, eta normalean behartsuak zubi azpietan bizitzen direnez, bera ere hor bizitzea izango zela aproposena pentsatu zuen.

Egunak argitu zuen jadanik, eta Libek oraindik lo jarraitzen zuen. Bere etxean berriz, konturatu ziren beraien alaba nagusiena falta zela. “Zer egin ote zuen Libek?” galdetzen zuten neskatxaren gurasoek.

Orduak pasa ziren, Libe ez zen etxera itzultzen, eta bere gurasoak geroz eta urduriago zeuden. Azkenean bere bila ateratzea erabaki zuten

arte. Denbora asko igaro zen, baina ez zuten aurkitu alaba. Gainera, Libe berriro bere maleta eta hartza hartu eta ibiltzen hasi zen norabide berri batean. Parke baterantz zihoan, eta bertan ume txiki asko ikusten zituen eta bere ahizpa txikiaz gogoratzen zen, baina ez modu onean, nahiz eta batzuetan bere irriak barregura eragin.

“Ez, ez ... Nire ahizpak nazka ematen dit!” pentsatzen zuen neskatoak.

Bat batean amona bat ikusi zuen. Ogi zatitxoak ari zitzaizkion botatzen usoei, eta oso pertsona onaren aurpegia zuen.

– Zer gertatzen zaizu gaztetxo? – galdetu zion andreak harrituta.

– Etxetik joan naiz, nazkatuta nintzen nire arrebaz – erantzun zion Libek – eta ez naiz inoiz gehiago itzuliko.

– Zergatik? Zer gertatu zaizu? – hitz egiten zion amonak.

– Nire ahizpa txikia da, ezin dut aguantatu ... – egiten zuen garrasi txikiak.

Andereak, tristura aurpegia jarri zuen, eta segituan galdetu zion ea nahi al zuen bere etxera joan dena konpondu arte. Libek pixkatxo bat pentsatu zuen, baina segituan erantzun zuen.

Etxera iristean, andreak jateko gauza pila bat eskaini zizkion, baina berak bere gozokiak jatea erabaki zuen. Inork ez zuen ezer esaten, amonak bere izena galdetu zion arte.

– Libe dut izena – erantzun zuen alai, gozokiak jaten zegoen bitartean.

– Ze izen polita, nik Karmen izena dut – esan zion andreak tonu gozo batean.

Baina berriz isiltasuna nabari zen. Batak besteari tinko begiratzen zion, tristura aurpegiarekin. Liberi malkotxo txikiak ateratzen zitzaizkion bere begi berdeetatik.

Hurrengo egunean, Libek bere letra txarrarekin notatxo txiki bat utzi zion Karmeni eskerrak ematen, eta etxetik joan egin zen. Bitartean, bere gurasoak, oso kezkatuak, poliziari deitu zioten.

Neskatxa txikia, bere maletatxo arrosarekin zihoan kaletik, eta bapatean gelditu egin zen elektronikako denda batean. Bere aurpegia agertzen zen telebistan! Libek harriturik aurrera jarraitu zuen kasu handirik egin gabe, baina jende guztiak berdinez hitz egiten zuen.

– Entzun duzue neskatxa txiki horrena? Sinestezina! – esaten zuen andre batek.

– Bai, bai ... Entzun dut, uste dut Libe izena duela eta zazpi urte dituela. Familia gaixoa, izugarritzko pena ematen didate. Non egongo da ume hori? – esaten zuen beste batek.

Libe korrika atera zen malkoak jario zitzaizkiola bere masail gorri eta potxoloez. Nekatuta zegoen, ezin zuen korrika gehiago egin, baina hala ere etxerantz joan zen. Leher eginda zegoen, eta bere etxeko ate parean.

“Zer egingo dut? Sartu edo ez sartu? Hitz egin edo isilik geratu?...” galdera asko zituen bere barnean, baina orain ez zeukan denborarik denei erantzuteko. Bere beldurrei aurre egin, eta atea irekin zuen gogo handiz.

– Ama, aita, Udane! – esan zuen garrasika.

Pauso handiak entzun ziren, eta ziztu bizian ama eta aita agertu ziren. Ez zuten ezer esan, baina besarkada handi batek milaka hitzek baino gehiago esaten dute.

– Libe, baina non sartu zara egun hauetan? – galdetu zion aitak.

– Aita, berdin dio. Orain garrantzitsuena, zuekin nagoela berriro eta konturatu naizela zuek zaretela inportanteena da. Asko maite zaituztet! – erantzun zuen alabak.

Ama negarrez zegoen, eta neskatxa bere gurasoen besoetatik banandu egin zen minutu batez. Udanerengana hurbildu eta esan zion:

– Kaixo polita. Zenbat denbora ikusi gabe ezta? Barkamena eskatu nahi dizut azkeneko denboraldi honetan zurekin oso gaizki portatu naizelako. Egundua hauetan, pentsatzen egon naiz, eta ez da ezer txarra ahizpa txiki bat izatea. Batzuetan negar asko egiten duzu, baina bestela panpina

baten antza duzu, eta hitza ematen dizut ez naizela berriz zugandik urrunduko. Anai-arrebak betirako dira ezta pottoli?

Haurrak irribarre txiki bat bota zion, nahiz eta ez ulertu ezer. Libe pozpuzik, gurasoengana joan eta izugarrizko beste besarkada bat eman zien.

Geroztik aurrera ez ziren ezta minutu bat ere separatu Libe eta Udane, eta beti elkarri lagundu zioten. Anai-arreben arteko harremana oso garrantzitsua da!



■ C. maila • 2. saria
OIHANE MOREIRA

Nire amonaren ohorez

Hor dago, nire ondoan, etzanda, bere begi beltzekin niri begira eta bat-batean bere buru barruan dauden argazki guztiak ikusi ditut.

– Oihane telefonora! – esan zidan nire amak.

– Nor da? – galdetu nion nik.

– Amona – erantzun zidan amak.

Telefonoa hartu nuen.

– Kaixo amona!!!

– Kaixo txikitxo, zorionak! – esan zidan amonak.

– Eskerrik asko baino atzo izan zen nire urtebetetzea, hala ere, esker-tzen dizut.

– Ene-ene ez dakit nola gertatu den, uste nuen gaur zela, barkatu txikitxo. – esan zidan amonak.

Oso arraroa iruditu zitzaidan nire amona ez baita inoiz ahazten nire urtebetetzeaz.

Amona ez da oso altua, begiak beltz-beltzak ditu eta oso arina zen. Beti gauzak egiten ari zen. Batzuetan Donostiara joaten zen paseatzera

bere lagunekin kafe bat hartzeko, beste batzuetan etxean gelditzen zen bere kroketa ospetsuak egiten, gero gure etxera etortzen zen bere krocketak afaltzeko.

Ez nion inportantzia asko eman eta aitari eta amari ez nien ezer esan, gainera batzuetan zerbait galdetzerakoan ez dute ezer esaten edo, okerrago, gezurra esaten dute.

Handik aste batera amonaren etxera joan nintzen

– Kaixo amona! Muxu bat – esan nion.

– Ene txikitxo geroz eta altuago eta politago zaude. – esan zidan amonak.

Besoa luzatu zuen eta esan zidan:

– Tori zure urtebetetzeko oparia.

– Eskerrik asko amona, eskertzen dizut. – erantzun nion.

Eta eskua irekitzerakoan nire oparia ikusi nuen, 50 zentimo. Harrituta gelditu nintzen, amona oso eskuzabala izan delako beti.

Nire gurasoei gertatutakoa esan nien, baina aitak esan zidan amonak urte asko dituela eta normala izaten dela hori gertatzea.

Hilabete batzuk pasa ondoren konturatu nintzen zerbait ezkututzen ari zitzaizkidala, zeren eta askotan sendagilearengana joaten ziren amonarekin.

Horregatik, otsaileko egun batean hotza egiten zuen eta bururatu zitzaidan amonarengana joatea bisita bat egitera.

– Kaixo amona! – esan nion.

– Ene txikitxo maitea geroz eta altuago eta politagoa zaude. – Erantzun zidan.

Beti berdina esaten zidan, baina niri ez zidan axola bihotzez esaten zuelako.

– Amona, galdera bat egingo dizut. Zerbait gertatzen zaizu? Etxean ez du inork ezer esaten eta kezkatuta nago.

– Jarri nire ondoan txikitxo, orain kontatuko dizudana gu bion arteko sekretua izango da. – esan zidan amonak.

– Oso ondo. – erantzun nion nik.

Orduan amonak nire ondoan eseri zen eta sekretua kontatu zidan:

– Memoria galtzen ari naiz. Ez ditut gauzak lehen bezala gogoratzen eta geroz eta azkarrago ahazten ari zaizkit.

– Eta, amona, zer egin dezaket? – galdetu nion.

– Ezer ez txikitxo, esan didate ezin dela ezer egin gaur egun. – erantzun zidan.

– Eta oroimen guztiak galduko dituzu? – galdetu nion berriz ere belhurtzen hasita.

– Bai txikitxo, hala da, baina beti maiteko zaitut. – erantzun zidan.

Une horretan bere begiak busti – bustiak jarri zitzaizkion.

– Ba amona, ni izango naiz zure memoria hemendik aurrera. Klasetik ateratzean inork jakin gabe etorriko naiz eta gogoratzen dituzun oroimenak idatziko ditut. Horrela ez dira galduko. – azaldu nion.

Esan eta egin. Horrela aritu ginen sei hilabetez, bera gauzak kontatzen eta ni idazten:

– Nire aita arrantzalea zen eta beti arrain freskoa jaten genuen. Egun batean, afaltzen ari ginela, bat-batean nire aita sartu zen oihuka eta oso pozik arrain erraldoi batekin besoetan...

Gogoratzen dut gure etxeko balkoian beti kanpai bat zegoela eta itsasontzia arrantzera ateratzen zela abisatzeko patroiak lurreraino iristen zen soka baten bidez kanpaina jotzen zuen, aita deitzeko. Guk batzuetan kanpaia jotzen genuen jolastuz eta aita haserretzen zen. – kontatu zidan amonak.

Egun batean, konturatu nintzen amonak kontatzen zituen oroimenek ez zutela zentzurik eta geroz eta azkarrago memoria galtzen ari zela ulertu nuen.

Gurekin bizitzera etorri zen eta geroz eta isilago egoten zen. Hasieran gurekin jan egiten zuen baina handik egun batzuetara ezinezkoa zen

amonak gurekin jatea. Batzuetan ezer esan gabe oihuka egiten zuen eta haserre zegoen eta orduan ni berarengana joaten nintzen eta besarkada bat eta muxu handi bat ematen nion. Orduan lasaitu egiten zen eta leihorearen ondoan jartzen zen aulki batean eserita arratsalde osoa edonora begira.

Oporretan Pirinioetara joaten ginen eta urte horretan amak amona gurekin etortzea ez zuen nahi, baina aitak baietz esan zuen eta bidaiara egin genuen.

Amonari ez zitzaion gustatzen kotxez ibiltzea mareatzen zelako eta bidai horretan ez zen mareatu, agian ahaztuta zeukan mareatzen zela (hori uste dut nik), beraz, lehen aldiz oso ondo egin genuen bidaiara.

Han gustura egon ginen. Amonak ez zuen asko hitz egiten garai horretan baina pozik zegoela ematen zuen. Leiho ondoan esertzen zen eta mendiak, txoriak eta zuhaitzak ikustea gustatzen zitzaion. Han beti irribarrez zegoen eta gu pozik amona horrela ikustean.

Oporretatik bueltatzerakoan okerrera egin zuen eta zaharrentzako egoitza batera eraman genuen.

– Han oso prestatuta daude, guk maitasuna besterik ezin diogu eman – esan zidan nire aitak.

Amonak ez gintuen inor ezagutzen, baina nik besarkada eta muxu bat ematen nizkionean oso pozik jartzen zen. Egia esan, pozik jartzen nintzen ni ere.

Urtarrilean Donostiako egunean danborrada zegoen egoitzaren aurrean eta amona ateratu genuen gurgildun aulki batean. Amona Donostiarra zen, alde zaharrekoa, eta Donostiako martxa entzuterakoan malko bat erori zitzaion. Orduan nik ulertu nuen zerbait zegoela nire amonaren buruaren barruan eta bazituela sentipenak.

Egunak pasa dira eta ahal dudan bakoitzean amonari besarkada eta muxu bat ematera joaten naiz.

Gaur ostirala da eta egoitzatik deitu dute. Badirudi geroz eta gaixoago dagoela.

Nire aita eta amari esan diet amonarengana joan nahi dudala nik ere eta baietz esan didate. Beraz, ama, aita eta hirurok joan gara eta arratsalde osoa egon gara bere ondoan.

Osaba eta izeba etorri dira eta momentu batean haize pixka bat hartu nahi zutenez, irteteko asmoa azaldu dute.

– Lasai egon, joan zaitezte denok haize freskoa hartzea. Ni geratuko naiz amonarekin – esan diet.

Ni amonarekin bakarrik geratu naiz eta hor dago, nire ondoan, etzanda, beri begi beltzekin niri begira eta bat-batean bere buru barruan dauden argazki guztiak ikusi ditut eta pozik zegoela sentitu dut, bere oroimena ni idatziak edukitzeagatik.

Altxatu naiz, muxu handi-handi bat eman diot eta baxu-baxuan esan dit: – Txikitxo!



■ D. maila • 1. saria

ARIANE OBINETA

Gailur gorena zapaldu

Gailurra zer den jakin nahiko nuke, zein da bizitzaren gailurra? Munduko mendirik altuena igotzea? Eta bertara igotzerakoan zer? Zoriontsu al zara gailur gorenera igotakoan? Gaur irakasleak gelara sartu orduko, zoriontsua izatearen galdera bota digu haizera. Zer den zoriontasuna galdetu digu, erantzun bakarraren esperoan. Lagun batek, bizitzaren gailurrera igotzeak, zoriontsu izatearen baliokide dela esan dit, nik hori guztia ez dut oso ondo ulertu. Zoriontsu izatea, maitasuna sentitzea, eguneroko bizian erabiltzen diren hitzak direla diot, onartu ere egin dut, behin baino gehiagotan irten direla nire ezpainenatik, baina oraindik ez dakit beraien atzealdean zer duten gordea. Hiztegiari begiratu eta, ez du bada jartzen, “Zoriontasun: ikus zorion”, hiztegiak ere ez badaki zer den zoriontasuna, nola demontre jakin dezaket nik zein den bere esanahia. “Zorion” begiratu eta pozik dagoen, ongi aurkitzen den pertsonaren arima-egoera, omen da. Orduan, gaixorik dauden pertsonak ez dira zoriontsuak? Zoriontsuak izan al dira? Eta tristerik egon arren, zoriontsua ezin al zara izan? Horrek guztiak beste galdera bat ekartzen dit gogora, zer da izatea? Nork sortu, nork egin gaitu? Gu zer gara gorputz soilak edo barnean zerbait aurki al daiteke? Zer da maitasuna? Zeinek sentitzen du mai-

tasuna? Norengan sentitzen dugu maitasuna? Noizbait maitatuak izan al gara? Izango al gara?

Ohearen gainean nago, egunero bezala, nire ustetan hobekien pentsatzen den tokia, ohea da. Esan dezaket txikitatik nire oheak edo nire gelak lagundu didala, aurrera egiten. Gogoan dut, gabonak ziren. Nire ohean sartu eta, ispiluaren aurrean edukitako elkarrizketa, nire barnean galdera asko zeuden, eta ez nuen beraien erantzunen berri. Olentzero etortzen omen zen, egun zehatz batean, familia guztia bildu, opariak ireki, eta bapo jatearen izena, Gabonak. Amak arrats hartan esan zidan, Olentzerori gutun bat egin behar niola, zein opari nahi nuen jakin zezan. Baina guztiak kontra jartzen ziren, ikastolan esaten baitzidaten, txintxoa izan behar nuela, Olentzerok guztiaren berri omen zuen. Txintxoak edo gaiztoak izan garen, berak omen zekien. Orduan, zergatik idatzi gutuna? Berak txintxoa edo gaiztoa nintzen bazekien, ikusten baininduen, berak ere jakin beharko luke, zeren falta nuen. Denborarekin guztia argitu zidaten, nire Olentzeroren ilusioa, ilusio faltsua zen, ez zen inor goizero esnatzen nik eginikoari so egitera hurbiltzen, gurasoak omen ziren, hainbat urtetan, zuhaitzaren azpian opariak uzten zizkidatenak.

Bertatik beste bi galdera ateratzen ditut. Zertarako ilusioak eduki? Ilusio guztiek, desilusioan bukatzen al dute? Eta horren erantzuna ere, ez dakit. Badakit ezinezkoa egingo zitzaidala ilusiorik gabe egunero esnatzea. Orduan, alferrikakoa al da egunero esnatzea? Agian, ditudan ilusioak porrot egin eta desilusio bihurtuko dira, ilusio faltsuetan. Ilusio faltsuak zer dira, bada? Ilusioak, ametsak sortzen dituzu zure barnean, eta guztiak apurtzean, ezin negarrari eutsi, irri egitea besterik ez zaizu geratzen, eta ingurukoentzat, agian, pozik agertu zaitezke, orduan? Desilusioak dituzunean, zoriontsu zara beste guztientzat? Guztia erlatiboa izango ote da, batzuentzat zoriontsu izango naiz eta niretzat kakaren hurrengoa? Ez dut ezer ulertzen. Hurrengo nire galdera, norbaiten heriotzak, maitasunarekin zerikusirik ba ote du? Gogoan dut, nik bederatzi urte nituenean, goizero eta gauero ikusten nuen lehen pertsona eta azkena ez zela berriz itzuli. Bai, tristea da. Jaio nintzenetik, edo pentsatzen jarri eta izan nuen lehen pertsonaren irudia, nire amonarena izan zen. Bai, amona xahar bat, baina beti alai zebilen. Hiztegiaren definizioa kontuan hartuta, esan daiteke,

nire amona Felixa, zoriontsua zela. Beti irribarrez zegoen, eta guk pozik ikusten genuen, baina egiazkoa ote zen bere irribarrea, edo zoriontasunaren desilusioak tapatzen zuen bere benetako irudia? Bederatzi urte nituen eta hamar bete nituenean ez zen nire gelara amonarik agertu. Nire urtebetetzeetan ere, ez nuen bere deirik jasotzen. Hamaika urte bete nituenean, ez zen etorri nire antzerkiko lehen ekitaldira, eta hamabi urte bete nituenean, amak mendi gailur batera eraman ninduen. Amona bertan zegoela esan zidan, nik noraezean begiratzen nuen, baina bertan ez zegoen amona Felixaren argi izpirik. Amak gorantz begiratzeko esan zidan. Bertan etzanda denbora luzez egon nintzen, agian amona Felixak, bidaia bat egin zuen zeruan barrena, agian, amona sorgina zen eta erratz gainean zeruan barrena zebilen? Agian, amona gizaki arraro bat zen, eta laino artean ibiltzeko gai zen? Baina nik bertan ez nuen ikusten. Ondoren amak esan zidan ez nuela ikusiko, orduan zertarako esan zidan gorantz begiratzeko bera ikusiko nuela? Eta, bat-batean, maite ninduela esan zidan amak, nik harrituta begiratu nion, eta orduan, amona hilik zegoela esan zidan. Amona hiltzeak ekarri zuen ni maitatzea? Zergatik ez zidan lehenago esan, amona ez zegoela? Agian jada amonak ez ninduen maite eta horregatik maite ninduen orain amak? Amak arraro begiratu eta azalpen bat eman zidan. Guztiak, ez omen gara betirako bizi, guztiak jaio, bizi eta hiltzera omen gaude kondenatuak. Orain nire ikasgelan esan dutenaz oroitzen naiz. Esan dutenez, zoriontsu izatea, bizitzaren gailurrera iristea da, orduan esan daiteke, nire amona zoriontsua dela. Amak bera ikustera, edo ez ikustera gailur batera ekarri bait nau. Hori ere ez dut oso ongi ulertu, eta ez bazara gailurrera iritsi zer? Ez al zara zure bizitzan zehar zoriontsu izan? Galdera hori alde batera utzi eta beste bat dakarkit gogora, zergatik ukatu izan dit amak hainbat urtetan, amona ez dagoela gurekin, edo behintzat ez gure etxean, mendi gailur batean dagoela? Amari galdetu nion eta berak erantzun bakarra eman zidan, maite ninduelako. Maitasuna al da pertsona bat galtzean sentitzen dena?

Egia esan, hamabi urte nituenean, haserretu egin nintzen. Amonak ez ninduen maite, ez zelako inor hil, eta horregatik ez al zen nitaz agurtu? Nire bizitza, betidanik izan da galdera mundu bat, galdera multzo baten erdian. Hamabost urte nituela, galdera gehiago, nire gelako ohe gainean jarri eta neure buruarekin, berriz, berriketan jartzeko, buruhauste gehia-

go. Amaren sabela handitzen ari zen, orduan bi ondorio atera nituen, ama gizendu egin zela denbora laburrean edo amak eta aitak, beste haur bat ekarriko zutela. Amak ez zidan ezer esaten, soilik inoiz baino maita-garriago zegoen. Orduan, aitari galdetu nion, ea amari zer gertatzen zitzaion. Aitak harro esan zidan, ahizpa edo anaia bat izango duzu, horrela ez zara bakarrik sentituko. Berriz ere, galdera sorta batek talka egin zuen nire buruan, zer da bakardadea? Aitak esandakoarekin ondorio batera iritsi nintzen, bakardadea sentitzean, gurasoak etorri, eta “pack” berezian beste anaia edo arreba bat ekarri eta bakardadea, desagertuko zen? Orduan munduan bakarrik dauden guztiei, beste anaia edo arreba bat ekarri behar die gurasoek? Ez nuen ulertzen, baina ondorio bat atera nuen, amona urrundu zenean, anaia edo ahizpa bat agertu zela. Orduan, bizitza honetatik norbait desagertzean, edo zuk ez ikustean, beste bat ikustera behartua al zaude? Orduan anaia edo ahizpa hori, nire amonaren ordekozat dator?

Nire bizitzan zehar galderak eta galderak bakarrik topatu ditut, eta etxean beti esan izan didate zerbait ulertu ezean, irakasleari galdetu behar diodala. Orduan, paper zati batean idatzi nituen nire galdera guztiak, eta irakasleak erantzun bakarraz ez zidan bada erantzun; bizitzak erakutsiko dizu, gauza bakoitzaren erantzuna. Eta bertatik galdera gehiago atera ditut. Noiz erakutsiko dizkit bizitzak, nire galderen erantzunak? Noiz arte da bizitza? Hamasei urte beterikoan? Berrogei urtera iristean? Hala amona bezala gailurrera iristean izango dut, galdera guztien erantzuna?

Bat-batean liburu batean irakurri dut, maitasunaren atea hamasei, hamazazpi urte inguruan irekitzen direla, eta ni harrিতa nago, edozein eratako atea ireki izan ditut nire bizitza guztian zehar, baina inoren atarian ez dago maitasunaren atea dela idatzia.

Baina atearen bestaldean zer topatuko dudanaren erantzuna ere ez da inon ageri, zer da maitasuna? Nork maitatzen gaitu? Maitasuna patuaren irudian dago islatua, edo soilik gure irudia jarriz sortzen dugun sentimendua da? Patuak erakutsiko digu zein maitatu eta zein ez, edo hori soilik bihotzak egin dezake? Maitasun guztiak bi aldeetatik izaten al dira, edo soilik batek eman eta besteak jasotzen du? Maitasuna ez al da soka baten antzekoa? Bakoitzak punta batetik tiratzerakoan, guztiak lanean

dihardute dena ondo joan dadin, edo batek gal edo irabaz dezan? Maitasunean beti irabazle eta galtzaileak topa al ditzakegu? Baina sokaren mutur bat askatuko bagenu, batek min hartuko luke, eta besteak irabazi? eta alderantziz? orduan maitasuna borroka bat al da? Inor erortze ezaren beldurrak mantentzen al gaitu guztiak batuak? Maitasuna zer da, min hartzearen kontrako erremedioa? Maitasunaren partaide izatearen desio soila?

Noiz jakin dezakegu maitatuak garen edo soilik laguntasunaren partaide garen? Laguntasuna, zer da bada? Jaiotzen zaren unean familia duzu inguruan, ondoren, poliki- poliki zure ingurua zabalduz, eskolara joaten zara. Txiki-txikitatik izan duzu jendea inguruan, batzuei soilik ezagunak jarri diegu izen, besteei indar handiagoa eman eta lagun izena eman diegu. Baina zer da lagun izatea? Nori jartzen diogu izen hori? Zure jakinmina asetzen duena al da zure lagun, zure adiskide? Gehien behar duzunean, agertzen den pertsona al da lagun? Edo soilik bere jakintzak gurearekin asetzeko agertzen da gure alboan? Lagunak guk sarturiko hankak berriz zapaltzera etortzen al dira gure aldamenera? Nori esan diezaiokegu laguntasunaren partaide dela, gure adiskidea dela? Agian gehien behar duzunean bera desagertzen bada, eta guztia ondo dagoenean bera badago, zure irribarrearen alboan, hori al da adiskide?

Adiskidearen irria ateratzen zidan mutikoak, nire izaeraren, nire izanaren mugimenduak sorturiko irribarrearen muina, honela nire izana berezia bihurtuz. Berezia izatearen sentimendu berezia, berezia izatearen alde onak agertuz. Inoiz egi bihurtuko ez nukeen fikzioaren gainean jarriko errealitatea. Gau iluneko izarrak pizteko arrazoia al zen? Sorginak kobazuloetara sartutakoan, lamiak igeri egitera errekarra jaistean eta ilargiaren agurraren ikuslea izandako momentu berean jakin nuen zure ezpainen melodia. Inoiz oparitu ez zidaten laztanaren, laztanik goxoaren partaide izan nintzen zeruaren azpian. Nahia eta desioaren atzean gorderiko sentimendua nuen nire barnean. Guztiaren mugimendua, laguntasunaren muxua al zen hura? Lagun onaren erakusgarria al zen zeruaren aurrean agertu behar genuena? Edo soilik patuak emaniko beste bultzada bat? Lagun guztiek emango al dizkirate muxuak gau hartan berak eman zizkidan moduan? Izarrak pizten al dira gauero norbait musukatua izanaren

ikur moduan? Muxu hori al da maitasunaren izatea? Maitatua izan al naiz norbaitek bere ezpainak nireak xurgatzean? Nire gorputzaren bestaldean zer dagoenaren jakin minak ekarri al du muxu ematera? Muxu bakar horretatik zer ondorio atera dezaket? Lagun onaren irudia gorde behar zuela nire ezpainetan finkatuta? Nire sentimenduak nahastearen errudun dela? Edo soilik bere desira nire galderen erantzuna zela?

Nire erantzunaren berri ezin nuen jakin, nik ere ez bainekien ziur zertan ari nintzen ezpain horiek nireen ondoan topatzean. Baina, bitxia badirudi ere, sentimendu berri horren aurrean jakinmin handia nuen. Esperientzia bat ona edo txarra den jakitearen erantzuna, esperimentatu ondoren izaten omen da, eta nik esperimentatzeko gogo handia nuen. Joko bat bezala hartu nuen hasiera batean, irriak erantzuten zizkidan hitz politen atzean. Eskua ematen zidan lurraren kontra topo egin baino lehen. Oztopoak kentzen zizkidan begi aurretik, gai nintzela argitaratuz. Aurrean nituen oztopoak nik soilik ikus nitzakeela, eta nik soilik ezabatzeko gai nintzela, nire begien aurretik. Euria egiten zuen egunetan, etxean geratzeko arrazoirik ez zela ageri erakutsi zidan. Ez nuela eskubiderik euriaren bidea oztopatzeko eta aterki batez bere bidea mozteko, bere bideak nire azalaren gainean bazuen amaiera, horri ezin niola uko egin. Dantza egiten erakutsi zidan, putzuz putzu erakutsiz euri tantek sortu zezaketen irudimenaren partaide izatearen arrazoi nagusia. Euri orban batetik nola mundua sortu. Nola kristalaren bestaldetik euri tantek sortzen zituzten lehiaketak amaieran bat eginik amaitu. Haizeak sorturiko mugimenduak, zuhaitzetako hostoak mugituz, negarrak atzendumuz, eta neguko gau hotzak, udarako irri epeletan bihurturik. Itsura aldatuz, zimurrak agertuz, nolanahi ere, irri egiteko arrazoiak eduki ez arren, irria iltzaturik nire irudian. Udazkeneko hostoak guda batean sartuz zein azkar iritsiko lurraren berotasunera, zeruko hotzetik alde eginaz. Txantxangorriak zuhaitzez zuhaitz jolastuz, adarrez adar. Mendien kolore marroiak, paseoan emaniko arrats ilunak. Zuhaitzetako hostoen pasealekuan, berdeak zirenak, denborak horituak, horiak zirenak, haizeak marroituak.

Mundialki ezaguna den sentsazioa, bakoitzak bere bihurtzen duena, bakoitzak bere erara bizitzen duena, baina hala ote? Hitzez adieraz ezin daitekeen gauza horietako bat omen da. Baina ikastetxean zioten, espli-

katzen ez bazenekien, zer zenaren ideiarik ez zenuelako zela. Eta barruko beldurak zergatik? Zeren beldur gara maitasunaren aurrean? Min hartzearen beldur? Ez asmatzearen beldur? Benetan maite zaituen adierazteko modua al da maitasuna egitea? Eta zein da pertsona egokia? Zenek egiten du pertsona bat egoki? Eta nola jakin aukera egokia edo okerra egin duzun? Nola froga daiteke, esperientziarik ez badago?

Bat-batean, maindire artean, goxotasunaren itzalean, manta artean galdurik. Arnasa ezin harturik, inoiz ezagutu gabeko bideak, ezagutuaz. Inoiz dastatu gabeko azalak maitatuz. Banan-banan gorputza estaltzen diguten prakak, alkandora zein galtzerdi kendurik, ezin guztiak batera kendu, nahi baina mantsoago ibili behar azkar ibili nahi duenak. Jantziak kentzeko irrika, gorputz biluziaren aurreko mirespena. Leihotetan agertzen den maitasunaren ikur moduan, gorputz beroen lurrina, trikiti zaharraren hauspoaren ahotsa, ezin geldi, ezin arnas, ezin geldi, ezin arnas, baina aurrera zoaz, bidean ez duzu oztoporik, bidearen amaierara iritsi nahi. Eskuak eskuekin batuz, elkarri indar eginik, hankak hanken artean galdurik, bi gorputzak bat eginik. Garrasirik ozenenera iritsi bitarteko, inoiz amaitzea nahi ez dugun bidea.

Udazkenaren eguzki izpiak desagertu ziren neguko gau hotzen artean. Ilargia laino artean ezkututzen da, hotz dagoelako. Eguzkia ateratzen da ezkutaturik, lotsaturik, gorritu egin baitzen uda zein udaberrian egindako akzioen ondoren. Orain lotsaturik irteten da egunez, nahiz eta indarrak egin lotsak indar handiagoa du laino artean. Euriak egiten duen bidea jarraitzen du kazkabarrak, kazkabarrak nahasturiko bide zailak baretzen ditu elur maluta zuriak. Irriak sortuz etxeen berotasunean, familia arteko maitasunean. Neguak batzen al ditu familiak? Edo bertako hotzak batzen ditu, elkarren beroak ihes egin ez dezan? Zergatik egiten dute ihes txoriek neguan, ez al daude gustura hemen? Zergatik egiten dute hegan, zergatik egiten dute ihes? Nora joaten dira? Noren eta zeren bila? Zergatik hemen geratzen gara gu? Zergatik ez dugu txori moduan hegan egiten, noranzkoari garrantzirik eman gabe, guztiak batu eta denak bidean aurrera jarraituz, askeak garela aldarrikatuz?

Elur malutak lurra jotzen duen bezala, lurrak zurituz, orain zergatik dira arrosez tintatu? Zergatik egiten dute ihes zuhaitz gainean dauden loreek

lurrera? Zergatik ote da? Agian, beraien sorterriaren jabe izan nahi dute? Agian sustraietara heldu nahi dute? Beti esan izan da azken bidea egite-
ra zure sustraietara jotzen duzula, hori egingo ote dute zuhaitzetako lore-
ek? Zergatik ateratzen da irria, zergatik ateratzen dira loreak, zergatik piz-
ten da maitasuna? Zer du, bada, udaberriak, beste urtaro batek ez
duena? Zergatik agertzen da eguzkia, neguan laino artean lotsatzen
zenean? Eguzkiak lotsak kentzen al dizkigu? Loreak loratzen diren
moduan, sentimenduak loratzen al dira gure barnean? Zergatik urtaro
honetan hasten da berriz zikloa? Nork ematen dio hasiera? Zergatik sen-
titzen gara alaiago, zergatik sentitu gazteago? Eguzkiaren beroak pozoiz-
tzen al gaitu bere pozoiz gozoarekin?

Udaberrian loratutako sentimenduak, denbora luzez eraikiak, udarako
eguzkiak ditu urtuak. Maitasunaren gakoak inoiz ezagutu gabekoak, alko-
hol artean itotzeko moduko motiboak. Denbora luzean biziak ditu zapal-
duak eguzkiak gaurkoan. Udazkeneko euri jasek jada ez dute nigan inon-
go aldaketarik. Euria soilik, lainoetatik jeisten diren tantak. Zertarako
dantzatu euriaren azpian? Busti eta gaixotzeko ez bada? Zertarako begi-
ratu gorantz, lainoek ez zaituzte lagunduko. Lurrean egindako orbanak,
orbanak soilik direla. Kristalean pegatzen diren euri tantek ez dutela
biderik egiten, guztiak bezala bere bidea egiten duela, igotzen den guztia
erortzen baita. Irudian agerturiko irriak jada ez direla irriak, sufrimenduz
jausten diren malkoak direla soilik. Gaurkoan hostoak ez dira kolorez
aldatuko.

Neguko hotzak ez dituela inork berotuko, ez dagoela motiborik ohetik
mantak kentzeko, soilik manta artean munduaren aurrean ezkutatze-
ko. Ilargia ez dela inon ezkutatzen, soilik oraingoan lainoek indar handi-
agoa hartu dute munduaren aurrean. Eguzkia ez dago bere ekintzekin lotsatu-
rik, nazkatu egin da egunero irribarreez leihora irteteaz. Horregatik eguz-
kia triste dago, eta bere tristura euriaz adierazten du, bere gorrotoa kaz-
kabarrak azaltzen du, eta bere ezin egonak elurrak babesten du. Eta
txoriek ihes egiten dute, ezin dutelako jasan bizi honetako zoritxar guztia.
Guztia gezur handi bat delako, guztia iruzur bat, guztia engainu bat dela-
ko. Horregatik egiten dute ihes urrutira, inork ezagutu ez ditzan, mundu
berri baten bila. Eta gu bitartean hemen geratzen gara, ez dugulako ado-

rerik gezurraren bestaldean zer dagoen ikusteko, ez garelako ihes egiteko gai, ez dugulako adorerik hegan egiteko, askatasuna sentitzeko.

Loreek ez dute beraien sorterrira joan nahi, soilik beraien buruaz beste egin nahi dute, hor goialdetik dena ikusten delako. Sustraietara heldu nahi dute, gehiago ez jaiotzeko eskatuz. Ez da maitasunik sortzen, loreak ez dira ateratzen, soilik lehen ez genituen ikusten. Eguzkiak ez gaitu pozoitzen, itsutu egiten gaitu, eta lehen ikusten genuena ezabatu.

Gaurko egunez min eman didate, zoriontasuna zer zen nekiela uste nuenean, berak erakutsi zidala pentsatzen nuenean, beste batekin ihes egin du. Agian txori moduan askatasuna behar zuen, edo agian ez zuen nire habian geratu nahi. Baina ihes egiten ikusi dut, nire habian bakarrik geratu naiz. Maitasuna zer zen banekiela pentsatzen nuenean, joan egin da. Orain badakit zer den maitasuna, nik maite nuen bera, eta amona bezala galtzerakoan sentitu eta jakin dut, maite nuela. Neguak inoiz gehiago ez direla horrela izango, udazken zein udaberriak ez dutela garrantzi bera izango. Maitasunaren desilusioak, ilusio guztiak bezala, desilusioan amaituak. Baina ilusio hori jaso den bitartean topatu dut zoriontasuna, baina orain bakardadearen parte naiz. Orduan orain zer egin behar dut, beste anai edo arreba baten bila joan? Bakardadearen partaide izatearen beldur naiz gaurkoan, ez dakit nora ihes egin, ez dakit hegan egitea zer den.

Triste nago, orain bakarrik sentitzen naiz, jende multzo honen erdian. Txindurritxo bat naiz mundu zabal batean, beldur naiz, guztia da hain handia nirekin alderatua izanda. Inguruan putreak daude hegan, jakiaren berri izan nahian zeruaren barrenean biraka, nire inguruan biraka. Alai dabilta jatekoa dutelako, beraien artean hitz egiteko hitzaldia dutelako, nire malkoek beraien gosea asetzen dutelako. Beraien gezurrekin asper-tuak, beraien biziak nahikoa kakaztuak dituzte, eta orain niregan dute begirada finkatua. Txorimalo jarri naute, txoriak engaina ditzan, nire senti-mendu guztiak inork jan ez ditzan, baina beraiek gehiago dira, ez dira nitaz jabe, eta nire sentimenduen gainak zapalduak izaten ari dira.

Egun batean, dena zoriontasuna zenean, guztiak ginen lagun, guztiak ginen adiskide, baina orain gehien behar ditudanean, ihesean doaz biz-

karra emanaz. Engainatua egon naiz lagunak nituelakoan, baina eguna iristerakoan desengainuaren parte naizela ohartu naiz. Iruzur maltzurra-
ren errailetan erori naiz, arrainak gizakiaren sareetan erortzen diren
moduan. Amua jarri didate, eta nik itsu-itsuan amarrua dastatu eta irentsi
dut, orain ordea guztiak aski alai daude nire sufrimenduaz gozaturik.
Baina guztiak nire sufrimenduarekin asetzen dira nire aurrean guztiak irri-
barretsu agertzean, nik berriz nirearekin erantzuten diet. Ezin dut hain-
beste putreren aurrean nire burua babestu, nire gorpua jada beraiena
da, poliki poliki, nirekin amaituko dute. Ostrukaren modukoa izan nahi
nuke, lurraren azpian burua sartu eta ingurukoaren berri ez inoiz jakin.

Baina putre artean, habitik irten berri den txori txikia agertu da niri
babesa ematera, bera ni bezain txikia dela badakit, baina bere indarrak
aurrera jarraitzeko aukera eman dit. Zaila edo ezinezko zirudien lana
burutu du, lehen begi artetik malkoak erortzen ziren modu berean, gaur-
koan berak jarri du irribarrea ezpain artean, pertsona horri lagun izenaz
ezagutu behar zaio.

Munduaren aurrean itxura bat dugulako guztiok baina, gurea al da itxu-
ra hori? Gure izaerak sortua izan al da? Edo inguruari gustukoa zaion iru-
dia nahi dugu? Guztien berdinak izateko, guztiak berdin jarraitzeko, baz-
tertua ez izateko? Zein da itxura egokia? Nork jartzen du puntu horien
zergatia? Zergatik izan guztien gustukoak? Zergatik ipini garenaren kon-
trako irudia munduaren aurrean? Zergatik zuri bihurtu, garenaz lotsaturik,
edo beldurturik? Zergatik dira izaki bitxiak diren bezalakoak agertzen
direnak? Zergatik izaki bitxi izan, guztiak garen modukoa izateari uko egi-
ten dionak?



■ D. maila • 2. saria

ARIANE OBINETA

Ich liebe dich

Paperezko hegazkinak egiten ikasi nuen, baina ez nituen jauziarazi beldur nintzelako, ez bueltatzearen beldur. Gaurko egunez, benetako hegazkinak hegan egingo dute. Noraezean, zeruko lainoak zeharkatuz, txoriak ikusiz, guztiaren irudia izan dezakezu hor gaineretik. Eta beherantz begira jartzean ikusiko duzu, neska ttiki bat ezerezean murgilduz, leihotik zerura begira, ea zeruan hegazkinen bateko leihoan norbait berari begira aurkitzen ote zuen.

Gaur etxetik urrundu zinela bigarren eguna duzu. Gogorra da onartu beharra eguzki izpien artetik zure itzala ikusten dudala. Beti izan arren zu izango zarenaren esperantza, inoiz ez zarela zu pentsatzeak barrutik hiltzen nau. Gaur atzoko moduan, berriz ere itsasora joan naiz. Itsasoa haserre dago, kaioak hegan egiten dute noraezean. Itsasoak talka egiten du harri handietan. Bere amorrua erakutsi nahiko balu bezala, itsasoak bidean doazen bikoteak bustitzen ditu. Badoaz, ez baitira bertara itzuliko, iparraldeko haize hotza gelditu eta ekialdeko haize beroa itzuli bitartean. Neguko hotzak pasako dira, bakarti. Poliki-poliki, zuhaitzak loratzen joango dira, bitxiloreek beteko dituzte parke hutsak, pinpilinpauxak pausatuko dira, lorez lore. Txoriek hegan egingo dute, lureko piztiengandik

ihesean. Behin loreak ateratzen direnean, uda iristean berriz elkartuko dira eguzki izpien artean. Erlojuaren orratzek ez dute inongo garrantzirik eduki. Baina bitartean, hemen naiz zuri idatzi nahian, inoiz aurpegira esan gabeko hitzak idaztera. Zure berri izan nahi dut, baina urrun zaude; nire berri eman nahi dizut, baina ez dakit nora idatzi.

Badira hiru aste ezagutu zintudala, gogoratuko duzun bezala. Herri txiki batean geunden, hirukote bat komunera sartu ginen, zuk ez duzu jakingo kanpoan baitzinen. Baina bertan hitzak hitz, irriak irri, malakoak bakarti, hiru neskatila bertatik irten ziren, beraien barrua husturik, beraien barrua biluzik utzirik. Neskatiletako batek zu ikustean, besoak ireki eta lotsak utziz, bere laguna eta zu elkartzen saiatu zen. Hura ikustekoa zen, biok zein baino zein desberdinagoak ginen, baina gau hartan ez zuen inongo baliorik ezta garrantzirik ere, elkarrekin bukatu genuen, gau hartako ilargiari agur esan genion.

Hurrengo egunean, nork daki zergatik, nork daki nola, elkar ikusi, toki berean. Bertan ezagutzeko aukera eduki genuen, gau luze hartan zehar. Ez nuen ezer ulertzen. Batzuetan urrun sentitzen zintudan eta besteetan oso hurbil. Itxaropena galdu nuen, inoiz ez nuen pentsatuko zure besoetan egongo nintzenik, baina, berriz ere, harritu egin ninduzun. Begiak itxetan zure irria ikusten nuen nire masailen alboan, zure irria aditzen nuen nire belarri ondoan, zure eskua sumatzen nuen, nirearen gainean.

Egunak aurrera zihoazen heinean, aurrez hitz egin gabe, elkarrekin topo egin genuen. Mendi gailurrera joan ginen, haizeak aurpegian ematen ziguten, eta kosta guztia ikusten genuen bertatik. Hondartzatik hasi eta bukaerarik gabeko itsaso zabalera. Zin egin genion elkarri, horrela izango zela gu bion artekoa. Baina nik aitortu egin nuen, gauzak ez zirela betirako izaten, eta ez zirela gauzak planifikatu behar. Txoriek ez dutela inoiz bere bidea marrazten, arrainek ez dutela beraien bidea pentsatzen, bere intuizioak esaten duena egiten dutela. Ezin ditugula gure sentimenduak behartu edo galarazi. Denborak aurrera egiten duen heinean ikusiko dugula zein den gure bizitzan egingo dugun bidea. Baina guk gure istorioarekin jarraitu genuen, gogoratzen al zara, gaua zen, itsaso ertzean topatzen ginen, argi bakarra itsas-argiak egiten zuen argia zen. Izarren azpian geunden, ilargia oraindik ez zen ikusten. Begiak isteko eskatu

egin zenidan, bestela ezingo zenidala ezer esan. Beldurra zenion erantzunari, beldur azkar joateari, min hartzeko ikarak moztzen zintuen. Baina gaueko iluntasunean eta karrusalen argitan, belarrira xuxurlatu zenidan “Ich liebe dich”. Ez nuen ezer ulertu eta zuk esan zenidan, denborak izango zuela bere garrantzia, hitzak hitz, sentimenduak sentimendu, lekuak leku, gogoan eduki behar nituela hitz haiek. Ez zirela hitz soilak eta gaur ez ulertu arren, berak bazekiela ulertuko nuela. Egunak aurrera zihoazen heinean, eskua heldu zenidan, begietara begiratu eta gauero izarrei jarraitzeko eskatu zenidan. Ez zela txantxa, ilunpean beraiek lagunduko ninduten, gehien behar nuen bidea aurkitzen.

Eta dena han bukatu zen. Egun batetik bestera jada ez nuen zure berririk izan. Orri batean idatzitako hitzak eta iparrorratz bat soilik nituen, ez nuen ezer ulertzen, orriak hau zion:

Hau ez da bukaera, hau ez da izango esperientzia txar bat, hau hasiera bakarrik da eta oraindik biek egiteko dugun bide honetan dagoen aldapa bat besterik ez da. Gogorra egingo zaigu hura igotzea, baina behin pasatzean bide lau eta luze bat geratzen da.

Ich liebe dich.

Banoa, ez dut balorerik izan agur esateko; ez baita agur bat, baina denbora luzez banatuko gaituen bide luze bat da. Ez eduki beldurrik bakarrik sentitzen zarenean, beldur duzunean edo galduta zaudenean, gorantz egin, iparrerantz, bertan topatuko nauzu, zure esperoan.

Hau da bere azken berria. Horregatik nabil zeruko hegazkinei begira. Izan ere, gauean izarrak agertzen diren moduan, egunez agertzen diren izarrak zeruko hegazkinak baitira. Itsasoari begira nago, ea baten bat iparrerantz doan, ea zu agertzen zaren. Buruan, ideia asko nituen bat ere loturarik gabekoak. Itsasoa, izarrak, zerua, Ich liebe dich, berak emandako iparrorratza. Galduta nenbilen, datu asko eta lotura gutxi.

Barkatu, ez dut neure burua aurkeztu, Katixa naiz, 16 urteko neska asteasuarra. Ile kiribila dut, marroia argia. Sorbaldarainoko tximak, amak esango lukeen modura. Begi handiak ditut, eta ezkerreko begian, orein bat dut, nire begiak berdexkak dira. Sudur luze xamarra eta ezpain finak. Nire bizitza errusiar mendiaren antzekoa da. Bizitzan, behin eta berriz

erori naiz harri berean. Oztopoak gaintzen joan naiz, baina berriz ere erortzeko. Oraingoan begiak ireki zaizkit berarekin, bere izena Liher da. Denek pentsa dezakezue nerabe baten maitasun istorio bat besterik ez dela nirea, baina gaurkoan beldurrak ez nau itsutu behar. Iraganak ez nau beldurtzen edo etorkizuna galarazten.

Neure burua aurkezten jarraituz, esan dezaket maitasun kontuetan ez zaidala guztiz ondo joan, baina orain begiak guztiz ireki zaizkit. Egia da joan egin dela, ez dakit nora ez eta zergatik ere. Ideia soilren bat dut, iparrorratz bat, aurrera jarraitzeko iparrerantz, eta ez beldurrik edukitzeko, noraezean aurrera jarraitzeko.

Ikasgelan ikasten aritu behar nuen bitartean pentsatzen egon naiz, "Ich liebe dich" zer izango ote zen. Hasiera batean latinez izango zela pentsatu dut, baina zalantzaren aurrean, irakasleari galdetu diot. Irribar egin du. Hori ez zela latina, hitz berriak ez asmatzeko, Marten nengoen, martziano bat ez banitz, hobe izango nuela lurrera jaitsi, ariketak egitera. Pentsatzen jarraitu dut eta beste irakasle bati galdetzea bururatu zait. Egia esan, beldur pixka bat ematen dit berari galdetzeak. Gizon jakituna da, baina erantzunak ematerakoan bidean galtzen da, bere istorioak kontatzen. Irakaslea Don Jabier da, urte askoren buruan apaiz sarturik Afrikan ibili izan da jende txiروي lagundu nahian. Orain dela urte batzuk, apaiz izateari utzi eta irakasle lanetan hasi zen. Istorio asko kontatu arren, inork ez du jakin zergatik utzi zuen bere bokazioa. Atsedenaldiaren ostean, berarengana joan naiz. Atsedenaldira ondoko tabernara joaten baita bere baso eri edan eta patata tortila pintxoz tripa betetzera. Galdera bat egin behar niola estean, gizona alaitu egin da, bere istorioetako bat kontatzeko aukera ikusi baitu. "Ich liebe dich"-ek zer esan nahi zuen galdetu nionean, aurpegia aldatu zitzaion bat-batean. Berarekin bira bat emateko eskatu zidan orduan. Egia esan behar badut, beldurtu egin ninduen hura erratean, baina gustura nengoen, klase orduak galtzen baintuen, eta edozer egingo nukeen matematikako klasea galtzearen. Gainera, horrela nire istoriorakoko datuak bildu eta nire historia argitzea lortuko nuke.

Don Jabierrekin oinez ibiltzera joan naiz, paseotxo ematera. Bera ere urtetan aurrera doa eta paseatzeak ez dio kalterik egiten. Bidean geundela honela hasi da, "Ich liebe dich"-ek historia luzea du, nire bizitzan.

Hain zuzen ere, maitasun hitz horiek izan baitziren nire apaizgoa uzteko arrazoia. Harrituta geratu nintzen, baina ez nuen pentsatu solasaldia oztopatzea, ez baitzigun inoiz esan apaizgoa uzteko arrazoia.

Hainbatetan aipatu dizudan moduan, gazterik sartu nintzen apaiz. Egia esan ez zen nire ideia izan, gurasoena baizik. Baina Afrikara bidaiatzeko aukera izango nuela pentsatzean, gurasoei kasu egitea erabaki nuen. Urtetan apaiz modura ikasten aritu ondoren, Afrikara joan nintzen, bertako ume, familia eta gainontzekoei laguntzera. Bidaiatzea nire ametsa zen, eta jainkoak badaki zenbat lagundu didan bertako esperientziak. Bertan egonik, nahikoa nuen familiei janaria banatzean, ipintzen zituzten aurpegiak ikustea, edo ume bati panpin bat ematean agertzen zitzaion irribarrea ikustea. Horrek guztiak pozten ninduen, zoriontsu egiten baininduen. Baina bertan ez nintzen bakarra, ume zein familia horiek ikusiz zoriontsu bihurtzen nintzena, beraiek zoriontsu izatearen ametsa nuen.

Bertan, bera ezagutu nuen, Ameli. Neska jatorra, alai, beti laguntzeko prest eta ederra zen. Bitxia zen, ez genion elkarri ulertzen. Berak ez zekien gure hizkuntza eta nik berearen berririk ez nuen. Baina hizkuntza ez erabili arren, elkar ulertzen genuen. Bere ile hori luzea txirikorda batean biltzen zuen, baina beti agertzen zen txirikordatik irteten zen ile eroren bat bere aurpegian. Bere begi urdinak, gure herritik banatzen gintuen ozeanoaren antzekoak ziren, zein baino zein ikusgarriagoak. Baina ez zen bere itxura maitemindu ninduen gauza bakarra, bere irriak, bere begiradak. Badakit milaka galdera dituzula baina ez nazazu oztopatu. Orduan gaztea nintzen eta orain baina erakargarriagoa, ile urdin honen postuan, nire ile beltza zegoen, nire azal kolore iluna. Lehen egunero hondartzara joaten bainintzen, itsaso ertzean paseatzera. Nire begiek dizdira berezi bat zuten, eta bat egin genuen bi gorputzak Afrika erdian. Hilabeteak pasa genituen elkarrekin lanean isilpean, isilpean geratu behar zirenak, isilpean geratzeko. Baina egun batean, goizean goiz larrialdi bat sortu zen eta apaiz gorenak, pekatu egiten harrapatu gintuen.

Hura pasa ondoren berriz ere hona ekarri ninduten, eta apaiz kargua kendu zidaten. Ezin izan nintzen agurtu Ameli gajoaz. Baina guztia ez zen horrela bukatu, hemen lan eta lan ibili nintzen goiz zein gau, dirua bildu eta berriz ere bere ondora joateko desira besterik ez nuen. Guztiari kon-

tra egin, dena utzi, bere alboan minutu bat gehiago ez galtzarren. Afrikara bidea egin nuen baina han ez zen bere aztarnarik, bere oinatz txiekitan ere bere arrastoa galdua nuen. Bat-batean txirikorda horia zuen neska bat ikusi nuen arte. Korrika batean joan nintzen bera besarkatzera, baina ez zen Ameli. Korrika batean, kanpamendu guztia goitik bera mugitu nuen. Nirekin joan zen apaiz batek niretzat gutun bat zuela esan zidan orduan. Malko artean irakurri nuen bere gutuna. Gurea ezinezkoa zela zioen. Berak horrela izatea nahi ez zuen arren, banatu egin gintuztela. Nik bakar-dadean utzi nuela, adiorik esan gabe eta bera, bere herrialdera eraman behar izan zutela. Arrazoirik jakin gabe. Bukaeran "Ich liebe dich", jartzen zuen. Zeru eta lurrak mugitu nituen gutun hura ulertzeko eta azkenean jakin nuen Ameli alemana zen. Neska alemana, eta "Ich liebe dich"-n esanahia, maite zaitut alemanez. Baina gutun hartatik ez dut bere berririk, urteak pasa ala alemaniara joateak galtzen ninduen baina ez nintzen gai izan. Beldur nintzen, hara joan eta jada beste batekin topatzeak, familia osatua izateak. Epaitua izanaren beldur, apaiz batekin pekatu egiteagatik. Baina inoiz ez zen nire ametsa gauzatua izan. Ameliri inoiz ez erantzun izanak goibeltzen ninduen, inoiz ez baitzuen jakingo nire erantzunaren berri, nire maitasunaren jakintzarik.

Don Jabier isildu egin zen, bat-batean itzali eta ni beldurtu egin nintzen. Txuri- txuri jarri zen eta eserleku batean esertzera lagundu nion. Bere osasuna ez zen guztiz ona eta gai horrek ez zion on egiten. Eserita egon ginen denbora luzez, isilpean, ez nuen nire istorian pentsatzen, Don Jabier eta Ameliren istoriaren bukaeran baizik. Istoriak gustatzen zaizkit baina istoria honetan bukaera aldatzeko beharra sentitzen nuen. Eta denbora luzez pentsatzen egon ondoren, Don Jabierri eskaera bat egin nion. Ez nuen inoiz pentsatuko Don Jabierri hura eskatu eta erregutuko nionik, baina istoriaren bukaera aldatu beharra nuen. Alemaniara etortzeko eskatu nion, honela bere ametsa gauza zedin. Amelik jakin behar zuen Don Jabierrek ez zuela bakarrik utzi, maite zuela, berak ere ez zuela banatu nahi izan. Baina Don Jabierrek irri egin eta ikasgelara laguntzeko eskatu zidan. Euskarako ordu guztia pasa nuen, nire zalantzak batu nahian.

Orain ulertzen nuen "Ich liebe dich" zergatik esan zidan, orain ulertzen nuen ipar orratzarekin iparraldera joateko desira zergatik zen. Iparraldean

Alemania baitzegoen. Ulertzen ez nuena izarrak ziren, izarraren bidea jarraitzeko eskatu zidan, baina ez nuen zergatia ulertzen.

Momentu honetan, nire helburua gauzatzeko, Don Jabierren beharra nuen. Horretarako udan lan egin nuen nire amaren kafetegian eta gorde-rik nuen dirua, gorde-rik aurrezkiak. Orain zen aurrezkiak gastatzeko unea, Don Jabierren beharra eta laguntza soilik behar nituen. Zaila egin zitzaidan, Don Jabierrekin elkarren ametsa gauzatzea baina, erokeria iruditu arren berari, berak hainbeste urtetan gauzatu nahi zuen ametsa gauzatzea zen helburua, eta hori aprobetxatuz, nire ametsa gauzatu. Beti egin nahi izan duenarentzat, bultzadaxo bat besterik ez diot eman, eta bideko laguna aurkitu, aurrera egiteko.

Aste Santuak gainean genituen, baina gurasoei nola esan banindoala, bi aste luzeetan kanpoan izango nintzela? Banekien zentzuduna bazen arrazoiak utzi egingo zidatela. Baina arrazoi falta nuen. Don Jabierrek horregatik ez kezkatzeko esan zidan, bera joango zela nire gurasoengana, beraiekin hitz egitera, eta ez zutela jakingo benetako arrazoiak. Ni gustora geratu nintzen, hurrengo egunean amak mailetak prestatzen hasteko esan baitzidan. Treneko bileteak Don Jabierren esku utzi nituen, nik mailetak prestatzea beste lanik ez nuen. Nire larruzko motxila hartu eta bertan gauza guztiak sartu nituen, baina beharrezkoenak, hau da, aurrezkiak, ipar orratza eta idatzia, nire larruzko motxilan sartu nituen. "Mailetak" prestatu nuen, eguna gero eta gertuago agertzen zen, nire urduritasunak gero eta handiagoak ziren, nire gogoak ezin ziren handiagoak izan, Don Jabierre gustura ikusten zen, nahiz eta bere bihotz ahulak ezin utzi hori erakusten.

Iritsi zen egun handia, bidaiari ekiteko eguna, ametsak gauzatzen diren bideari hasiera emateko eguna zen. Tren geltokira joan ginen, bitxia zen irudia, alde batetik hamasei urteko neska gaztea, buruan zapia jarri-rik, txaketa bakeroa jarri-rik eta hanketan, nire galtza gustuko-ena. Bigarren eskuko azoka batean erositako galtza zabalak, nire amak dio hippy antza hartzen dudala piura hauekin, baina nik gustuko dut nire jantzeko modua. Nire alboan, hirurogei urte inguru edukiko zituen gizon zaharra. Urteak ez daude bere alde bizitza honetan, bizitzak bira asko eman baitizkio gizajo-ari, eta ez dira guztiak onuragarriak izan. Trena, tren errailen gainean

zegoen, gure aurrean. Hura izango al zen, gure bizitzak argituko zituen trena, hura izango al zen paradisuaren bidearen trena? Aldendu egin ziren gorputzak, trenak berriz batuko al zituen? Negarrak irri, ametsak gauzatu, esperantzak bete, tren hark zuen gure bizitzako giltza. Egokia izango ote zen urrutira urrundutakoak berriz batzeko iraganerako bidaiari ekitea? Eskailerak igo nituen. Pauso bakoitzeko beldurrak, ikarak, gogokak, indarrak, ilusioak, guztiak zihoazen nire barnean. Trenean sartu nintzen urduritasunak lagun, Don Jabier eta ni tren zahar hartako bagoi bateko gela antzeko batean sartu ginen. Atea ireki eta lau pertsonentzat lekua zegoen bertan, gu soilik bi ginen, baina bertan sartu ginen, lau eserleku beterik iristea baitzen gure ametsa.

Nekeak neke, lokartzea lortu genuen bikote xelebreak. Goizean goiz, trena gelditzean, eguzki izpiak leioa zeharkatzean, esnatu egin nintzen eguzkiaren izpi bero artean, inurriak ginela zirudien, poliki poliki baina geratu gabe, beti lanean. Trena motel zihoan presarik gabe, lasaitasuna helarazten zidan. Igarri egiten nuen ametsak gauzatu egingo zirela. Eguzki izpiek eguzkitik lurrera bidaia luzea izan arren, azkenean iristen dira lurrera, jada jakitun nintzen nire helmugara iritsiko nintzela egunen batean. Baina beldur nuen, eguzki izpiek kolorea emango zidaten eta zoriontsu egin, hala sufrimenduaz erre, eta gorri gorri bakardadean etxera joango ote nintzen. Jaikitzean, gosaltzeko zerbait erostera joan nintzen, trenaren hasieran jantoki bagoi antzeko bat zegoen, eta bertatik, ahora eramateko jakiren bat hartu nuen biontzat. Berriz ere gure bagoiko etxera joan nintzen, eta gosaldutartean pentsakor egon nintzen, leihora begira, paisaia kontenplatuz. Liherrek emaniko iparrorrazari begira, berak idatzitako hitzei bigarren zentzua aurkitu nahian ibili nintzen. Don Jabier bitartean, trenean isilik zegoen, gero eta itzaliago sumatzen nuen. Ez zuen apenas hitzik egiten, ez eta mokadurik irensten, baina bere begietan dirdira hunkigarri bat agertzen zitzaion. Bidean aurrera gindoa-zela, Frantziara iritsi ginen, leihotik begira nengoela, horma irudi batean, Le Mans, jartzen zuen. Berriz ere, idatzia irakurtzen egon nintzen, buruz nekien jada. Orduan iparrorrazari begira jartzean, urduritu egin nintzen, iparrorrazaren orratza erotzen hasia zen, alde batetik bestera birak ematen hasi zen, geratu gabe, orduan larritu eta, ireki egin nuen, konpondu nahian. Beheko aldetik irekitzean, gehiago harritu nintzen, bertan orri bat

agertzen zen, zilar moduko izartxo batekin. Ez nuen ezer ulertzen, eta korrika batean orria ireki nuen.

Izarrak jarrai bidean, zerua topatu bitartean, arkakusoen azokan, hirugarren postuan, aurkituko duzun zazpigarren koilarean, topatuko duzu zerua. Paris, maitatuen eta maitasunaren hiria izanik, maite zaitut hemen goitik.

Don Jabier esnatu nuen berehalakoan, eta topatutakoaz hitz egin nion. Trena Parisera heltzean, biak bagoitik jaitsi ginen. Zoratzen nengoen, ezer gutxi ulertu arren, jakin bai bainekien bide egokia egiten ari nintzela, bera nire esperoan zegoela, berak maite ninduela, ez ninduela bakarrik utzi. Parisen jaitsi ginen, gure maletak eskuetan, gure irribarrea ahoan. Merkatura ere iritsi ginen, egia esan ni iritsi nintzen, korrika joan bainintzen, Don Jabier atzean utzirik. Ezin nuen gehiago itxaron, zerua zapaldu nahi nuen. Merkatura joan nintzen, hirugarren postura eta bertan, mutiko gazte bat pitxiak saltzen ari zen, horma antzeko batean, koilareak zeuden, beheko mahaian, eraztun eta eskumuturrekoak. Goitik hasi eta zazpigarren koilarera ailegatu nintzen, borobil antzeko koilare bat zen, eta erdian, izar bat zuen, eskuetan eduki nuen zerua, une hartan. Koilarea erosi nuen, eta patrikatik izarra atera nuen, berak iparrorratzean emaniko izarra. Koilarearen zuloek bat egin zuten, birak ematen hasi nintzaion izarra-ri, eta une batetik bestera, koilarea erditik ireki zen. Koilarearen barnean, tren txartel bat zegoen, Alemaniara zihoan trenaren txartela, nire ametsaren txartela nuen esku artean, momentu hartan zeruan sentitzen nintzela, ez zen ametsa.

Bertan esperoan egon nintzen, Don Jabier agertu zen arte. Aurpegia zurbil zuen, eta esertzeko eskatu zidan, nirekin hitz egin nahi zuela. Begiak ireki, belarriak adi-adi beraren ondoan jesarri nintzen. Bere bidea amaitu zuela esan zidan, eta ez zuela atzera bueltarik, bere bihotza motel zihoala, laster bukatuko zuela bere bidea. Afrikan zegoela, gaixotasun batek lapurtu ziola bihotza. Egunak aurrera zihoazen heinean pausoa okerragoa egiten zuela. Eginahalak egin arren ez zuela gauzatzen erritmoa jarraitzea. Baina mesede bat eskatu zidan, nire ametsa gauzatzea ahal nuen bitartean, berandutu baino lehen. Bat-batean, bere maletatik egurrezko kutxa bat atera zuen. Barnea gutun eta olerkiz hornituta zego-

ela esan zidan. Bere sua itzaltzen zen bitartean nik bidea jarraitzeko eta Ameliren eskuetan utzi behar nituela bere ondasun guztiak eskatu zidan. Kutxa maletan sartu nuen, helbidearen alboan, Don Jabier agurtu nuen, baina ziur nengoen ez zela agur bat izango, berriz ere ikusiko nuela, berriz ere adituko nituela bere kondairak.

Ni nire gauzak jaso eta trenera joan nintzen, Alemaniara zihoan tren hartzera, hura ez zen aurreko trenaren modukoa, hau bizkorragoa zen, eta gero eta gertuago sentitzen nuen beraren beroa. Treneko bagoi horiek zenbatuak ziren, eta nire eserlekuan eseri nintzen. Alboan amonaxo bat nuen, ile zuria zuen, txirikorda batean sartua, begiak urdin urdinak zituen nahiz eta betaurreko borobil batzuk zituen aurrean. Gure parean bikote gitarra jole bat zegoen. Polita zen irudia. Amonatxo Alemanen zen, ez nion gauza askorik ulertzen, baina nire hizkuntza ikasten ari zela esan zidan berak. Urteak zirela ikasi behar zuela, baina inoiz ez dela berandu ametsak gauzatzeko. Hitz egiten aritu ginen denbora luzez, baina kutxa irekitzeko desirak barrutik pizten ninduen. Kutxa zaharraren atea ireki nuen. Bertan gutunak eta gutunak zeuden, sinesgaitza zen zenbat gutun zeuden bertan, eta guztiak helmugara iritsi gabe.

Bat-batean, Ameliren orria ikusi nuen, Alemanez idatzia zegoen eta ez nuen askorik ulertu behar. Orduan zera bururatu zitzaidan, alboko emakumeari itzultzeko eskatzea, ez nuela alemana ulertzen, eta berak esango zidan hitz bakoitzaren zentzua zein zen. Emakumeari eman nion orria. Zaila zen ipintzen zuena ulertzea, urteak baitzituen orri hark, zimurtua zegoen, kolorea janda, baina oraindik, bolalumaren kolorezko ñabardurak ikusten ziren bertan. Momentu batetik bestera, emakumeari negar malko bat isuri zitzaion begitik hasi eta lurzoru hotzera ailegatu arte. Besarkatu egin nuen, arrazoia jakin gabe. Orduan berak guztiaren berri eman zidan, Afrikara joan zen neska gaztea bera zela, apaiz batekin pekatu egin zuen neskatila bera izan zela, maiteminduta pasatu dituela urteak. Ameli bera dela, garai batean zen dama, orain amona xahar bat dela, baina sentimenduak ez direla aldatu. Hori aditzean, istoria guztia kontatu nion eta kutxa zaharra eman nion, eta Don Jabierren helbidea eman nion, inoiz ez zela berandu izango ametsak gauzatzeko. Bitan pentsatu gabe, kutxa hartu, muxu eman eta bagoitik jaitsi zen. Momentu hunkigarria zen, eta

parean nuen bikoteak, gitarra zaharra hartu eta kantuan hasi ziren, kantuan hasi ginen.

How many roads must a man walk down

Before you call him a man?

Yes, 'n' how many seas must a white dove sail

Before she sleeps in the sand?

Yes, 'n' how many times must the cannon balls fly

Before they're forever banned?

The answer, my friend, is blowin' in the wind,

The answer is blowin' in the wind.

Baina momentu batetik bestera, ez ginen hiru kantuan ari ginenak, lau eserleku horietan jada lau geunden. Lau pertsona, bi bikote, bi amets gauzaturik. Iparrean elkartu ginen bikoteak, inoiz pentsatu gabeko ezus-tekoa. Baina kantuak dioen bezala erantzuna lagun, haizean dago.



■ E. maila • 1. saria

IXIAR IRULEGI

Izpiritua ikusten, aluzinatzen, imajinatzen

*Bizitzak ez du ordea
ezer ere galdetzen
galderak nireak dira
arrazoi bat bilatzen.
(Xabier Lete)*

Sugarrak gorri, laranja, hori, kulunkatzen zebiltzan; Maite epelean, sutondoan eserita, gozo, arnasa sakon hartuz, gorputzaren zati bakoi-tza sumatuz, suarekin bat eginaz, pentsamenduak airean, hantxe zegoen, egonean.

Begiak irekitzen zituenean, suari so gelditu ondoren, lau pareta zurien artean zegoen arraska lauki luze zaharrari begiratu, honen gainean zeuden tresna exkaxei irri egin, iturriari zerion ur ttanttak entzun, zoko batean jarritako ohe zarpailtsua agurtu, leiho txikitik begiratu eta ate estutik kanpora irten zen.

Begirada inguru guztian borobil borobilean paseatzen zuen eta bere sakonean sortzen zitzaion alderantzizko ur jauzia kanporatu nahian irrintzia botatzen zuen.

Eguneroko erritua zuen. Nondik entzungo ote zioten? Egun horretan ibiliko ote zen norbait inguru haietan? Aurrean Udalaiz, patxada ederrean eserita, eskuinetara lzpitze, harkaitz jostalari alaiak, atzeko aldean ezkerretara Anboto, dama jantzi zuri duen baten antzera, hantxe beti, beti prest egunonak emateko, egun ona oparitzeko, ezeren truke, maitekor.

Zorion hartan, sutan burdinazko tresna ipini, gainean kazuela bete esne eta berotu arte kantuan aritzen zen. Kantuak bere barnean kilima leunak egiten zizkion, gozamina areagotuz. Gosaria hartu, atarian eseri, edalontzian zeukan esnari begiratu: Maritxu artzaina, ardiak, belarra, esnea ekartzeko erabiltzen zuen ontziaren egileaz gogoratu eta denei eskerrik beroena emanaz, gustuz edaten zuen, gozatuz.

Ondoren, sagar pare bat motxilatxoan hartu eta mendi buelta luzea egitera joaten zen, galtzea gustuko zuen, dena erabat ezberdin eta erabat berdina egiten zitzaion. Zuhaitz mota guztiak ezagutzen zituen: haritza, pagoa, gaztainondoa, urritzea, lizarra..., denak ezberdintzen zituen; baina denak enbor, adar eta hostoak zituzten, denak tinkotasuna, sendotasuna jariatzen zuten; hau sentitzea Maiteri asko gustatzen zitzaion eta zer esanik ez haizeak hots finez eta mugimendu leunez hostoak astintzen zituenean, bere baitan sortzen zen dantza harmoniatua sumatzen zuenean, ze nolako algarak egiten zituenak, a ze festa! Besterik gabe disfrutatu egiten zuen!

Zoramen horretan, halako batean tripa zorriak sentitu zituen. Batera eta bestera begiratu, bista ederrenaren aurrean eseri, motxilatik sagarrak atera eta kris-kras, sagarra koskatzean ateratako hotsa preziatuaz eta sagarraren gustua zapoztatuz lasaitzen zuen sabela. Asetzerakoa belarretan etzan, hosto dantzarien tartean zerura begira geratzen zen, erdi lo, deskantsuan. Eguzkia gorde gordeka jolasten hasten zenean, txabolarako bidea zein ote zen orientatzen hasten zen, Anboto zuen erreferente nagusia, harantz zihoana zen bide egokia. Batetik edo bestetik beti iristen zen helbidera. Bere lekutik, eguneroko arrats ezberdinak kontenplatu zituen, batean hodei tartean eguzkiak jolas-

ten jarraitzen zuenak eta bestetan, eguzkiak sua piztu balu bezala, zerua gorri-gorri jartzen zutenak.

Iluntzerakoan, ate estutik sartu, kandela piztu, suari bizia eman eta baratzeko porruak prestatzen zituen, sutondoan eseri eta afaldu egiten zuen, porruen gustu suabea atsegin zuen. Ohean sartu, kandela itzali eta suaren garrak sortzen zituzten itzalei begira lo geratzen zen.

Makina bat buelta eman zizkion eguzkiak isiltasun eta hutsunea nagusitzen zen guneari, egun berezi hura iritsi zen arte.

Kanpoan pauso batzuk entzun, beldurra sentitu eta bere buruan sortu zitzaizkion galderei entzun zien: nor ote? pizti bat? txikitan kontatutako sakamantekas? sorgin gaiztoa? Lasaitu zenean, pozez gogoratu zituen Martin eta Garbiñe: hauek ote? Kanpora irten zen eta besoak zabalduz elkar besarkatu zuten, parrez, lepotik helduta eseri ziren atariko enborrik ederrenean. Garbiñe zen, tarteka etortzen zen laguna. Gehienetan zigarroa atera, barratxo marroi bati puskatxo bat moztu, behatzetan haustu, tabakoarekin nahastu, paperean bildu, zigarroa piztu eta erretzen hasten zen. Horrela aritzen zenetan, aurpegia zabaldu eta begiak bizitu egiten zitzaizkion. Lasaitasuna zerion. Batzuetan, gustuko hizketaldian hasten ziren. Gaurkoan aurrekoari jarraitu zioten.

Garbiñek: Martinek esaten dit, berriro irakurri duela eta berak ulertzen duenez, mundu ezberdin bat, dimentsio honetakoa ez dena, bada-goela, bai, ziurtatu egin dit.

Maitek: Baina nola? non? Txikitan irakatsi ziguten zeru eta infernu eta Jaungoiko eta aingeru eta... parekoa? Leku berdinean al daude denak edo beste gune bat al da?

Garbiñek: Beste gune bat izango da, zeren horiek erlijio kontuak omen dira, baina berak dioen mundu hori, energiekin lotuta omen dago eta tradizioekin.

Maitek: Nik ez dut ezer ulertzen, ni hemen gustura nago bai eta hobe dut bertan jarraitzea.

Maite konturatu zenerako Garbiñe lo zegoen. Eguzkia ere kukuka hasia zenez, afaria prestatzera sartu zen ate txikitik. Egun hartan biek

afaldu zuten. Afal ondoren, Garbiñek hots arraroak entzuten omen zituen eta kizkurtu egin zen, dardarka jarri zitzaion gorputz osoa, egon ezinean zutitu eta bere etxera joan nahi zuela garrasika hasi zen.

– Lasaitu Garbiñe, kanpoko hostoak dira ate joka, lasaitu, isiltasuna mamuz betetzen baduzu, itoko zara, baina den bezala, hutsa, baketsua, barneratzen baduzu, gustura sentituko zara, ikusiko duzu, saia zaitetz nirekin batera arnasa hartzen.

Bien gorputza korapilatu zuten, bien arnas erritmoa parekatu, bien berotasunetik sortu zitzaien desioa asetu, eta poliki poliki loak hartu zituen.

Eguzkiaren lehen printzak ohera iritsi zirenean, Maitek begiak zabaldu, laguna lotan zegoela ikusi, muxu eman eta isil isilik eguneroko errituak betetzen hasi zen.

Garbiñe ohean baketsu gelditu zen. Irrintzia botatakoan, oraingoan, Maitek pentsamenduei eutsi zien eta hauetan murgildu zen, zuen kuriositate nagusituz: Non ote da mundu hori? Nola izan daiteke hori? Nik eza-gutu egin nahi dut! Erabaki tinkoa hartu zuen.

– Garbiñe, nola iritsi naiteke beste mundu horretara?

– Esaten dutenez, horretarako droga gogorra hartu behar izaten omen da.

– Eta zuk lor diezadakezu?.

– Ez, gure lagunak bere buruaz beste egin zuenetik, guk ez dugu horrelakorik kontsumitzen, ez zaigu interesatzen, gorroto dugu.

– Eta nik, sekulan horrelako ezer probatu ez dudanez, zuen txokolate hori hartuko banu? Baina ez dakit erretzen, ez nuen ikasi.

Bere lehenengo zigarroa probatutako egunaz oritu zen: koadrilaren erdian paketea jarri, zigarro bana hartu, bi behatzen artean sartu eta zineko artisten keinuak eginaz, harro, zigarroa erretzen zuten egunaz, denen keak gorantz abiatu ziren momentuaz, hauen lainoen irudietan Maite ia zorabiatuta erori zen egunaz, ahoa mikaztuta, lehorra gelditu zitzaion egunaz. Ez zuen gehiago zigarrorik piztu. Zertarako? Ez zuen ulertzen! Ez zuen sekula ulertu. Baina orain, zer egin?

– Bueno, infusioan ere har daiteke, nahi baduzu prestatuko dizut, bertan urtu eta...baina, nik ez dut ezer jakin nahi eh? Zure ardurapean, bale?

Hasieran ezezkoa esan zion, baina jakin nahiak baiezkoa erantzutera bultzatu zuen. Prest zegoen esperientzia hartatik ikasteko, ondorioak ateratzeko.

Maitek sua piztu zuen, betiko eran eseri eta Garbiñek infusioa prestatu zion.

– Bero beroa dago, gustu ona du.

Bukatu zuenean, lasai jarraitu zuen berean. Halako batean sugarren artean liburu erraldoi bat azaldu zitzaion, orrien artetik aiton bizar zuri-dun argal bat atera eta berarekin joateko gonbitea egin zion. Maitek eskutik heldu eta amesten ari zen mundu horretara zeraman ziurtasuna sumatu zuen.

Kanpoan zeudela, Anbotorantz begiratu zuen eta erdi hegan, dantzan, irrintzika, kantuan, sorgin talde bat zetorren beraiengana, soinean koloretako jantzi luze, garden, fin zekarten eta buruan durbante txuri biribilduak. Maitek burua astindu zuen, begiak ireki eta itxi zitzu bizian eta momentuan Anbotoko dama zuria zegoen; sorginak, bizarduna, desagertu egin ziren.

– Zer gertatzen zait? Garbiñe, non zaude? Garbiñek, ez omen zuen ezer ikusi, hantxe zegoen sutondoan.

Maite, esertzeko makurtzen hasi orduko gorputza borobildu, besoak atzaparrak bihurtu, masaila muturra, belarriak tentetu eta indar guztiekin uluka hasi zen Garbiñerengana hurbilduz. Honek hasperen eginaz, abia-da bizian alde egin zuen. Maitek bere ulua entzundakoan, berriro burua astindu, begiak ireki eta itxi zitzu bizian eta bere esku txikiaz aurpegia bilduz, burua eutsiz, arreta zorrotzu zuen: zer gertatzen zait? Zerbaitek menperatu egiten nau, momentu berean bi mundutan nabil, nola daiteke?

Baina ezin zuen pentsamendua eutsi, ezin zuen atentzioa mantendu. Gorputza atzera eta aurrera joaten zitzaion. Bizkar hezuraren amaieratik gorantz indar garbi, fuerte bat sumatu zuen, kanporatzerakoan oihu

puru, ozen bat atera zitzaion eta Izpitzeko haitzen zartadarekin sortutako oihartzunak, lur guztian entzuteko moduko oihua egin zuen.

Oihartzunaren dardaretan bildurik zegoela, Izpitzen begiak jarri eta hiruki ikaragarri batek aho zabalik utzi zuen, hirukiaren barruan begi izugarria ageri zen, begi agintaria, jakintsua, ahalguztiduna -txikitan elizan ikusten zuen irudikoa-, zur eta lur hari begira geratu zen, harrিতuta, zer esan ez zekiela. Horrela zegoela, begia, trumoiaren antzeko ahotsarekin, hizketan hasi zitzaion:

– Zu, Maite, izendatzen zaitut munduko salbatzaile, zu izan zara misio hau betetzeko aukeratu dudan izakia, ondorengo mezu hau zabaldu behar duzu lurraren lau haizetara, betirako gogoan hartu, tinko grabatu, agindua jaso, bete eta salbatuko zara: “Gaztediari jakinarazi behar diozu drogen bitartez bizitzen dituzten sentsazio, irudipen, esperientziak lor ditzaketela orientetik datozen tekniken bitartez, ez dituztela momentuan sumatuko, baina pazientzia eta konstantzia handiekin iritsiko direla bizipen horietara. Gainera, era horretara ez direla drogen menpe biziko, baizik eta beraiek izango direla hauen gidari”.

Burua astindu, begiak ireki eta itxi ziztu bizian eta Izpitze soilik ikusten zuen. Gorputz guztia dardarka sentitzen zuen, arina, txundituta, lur jota. Ate estutik, bere buruaren jabe egiteko asmoz, sartu zen sutondora. Denbora luzez aritu zen arnasestuka, lasaitu ezinean, emeki emeki arnasa sakon hartzera lortu zuen arte; bere horretan lo gelditu zen.

Gaurkoan txorien kantuak esnatu zuten, seko lo egin zuen. Baina eguneroko erritoetan hasi zenean, bere pentsamendua galdera batean zegoen finkatuta: Zer gertatu zitzaidan? Nola egon naiteke bi mundutan batera? -behin eta berriro galdera berbera egiten zion bere buruari.

Mendi buelta egiten ari zenean, lasai, zuhaitzak ez ziren enbor, adar eta hosto baizik eta altxorrez betetako kutxatilik, edo desfilean zihozten soldaduak, edo mila motatako animaliak. Esfortzu bat egin behar zuen ohiko basoan ibiltzeko. Ohartzen zen oraindik ez zela bere buruaren jabe, oharkabean nonbaitera joaten zela. Pauso batzuk aurrera egin, zuhaitz bati begira jarri: adarrak, hanka, beso, buru, tximino bat saltoka zirudien; besteari so gelditu: enborren loditasunak elefante

baten gorputza hartzen zuen, adar sendoenak bere tronpa eta motzenak belarri. Sabana batean zegoela zirudien.

Horrela igaro zituen egun batzuk, hala ere gero eta errazago egiten zitzaion lasai gogoetak egitea. Lehenengo konturatu zen beste mundu horretan ikusi zituen irudi guztiak ezagunak zituela, bere bizitzan txertatutakoak zirela, bere jakinduriak eta erlijioak irakatsitakoaren nahasketa izan zitekeela.

Barrua gozo sentitzen hasi zen, pozik zegoen, bere nahia bete zuen. Gaur basora zer gertatzen zitzaion behatzeko helburuarekin joan zen. Poliki zihoan, betiko koloreak, betiko irudiak ikusten zituen, baina gaurkoan alderantziz gertatzen zitzaion,

Ahalegin txiki bat egiten zuenean, sutarako prestatuta zituen adar motz lodiak, ipotxak bihurtzen ziren, esertzeko zuen enborra loreontzi; magia egiteko ahalmena zuela iruditu zitzaion. Oraingoan bera zen ikuskizunaren jabe, nahi zuen lekura begiratu, kontzentratu, eta imajinarioak indar hartzen zuenean, kitto, hantxe zegoen mundu miresgarria. Imajinarioaren indarra zen!

Hemendik aurrera disfrutatzeko beste tresna bat zuela jabetu zen, kontent jaiki zen eta betiko moduan kantuan hasi, momentuan ohartu zen abesten norbaitek laguntzen ziola, Garbiñe zen.

– Zer moduz? Ongi al zaude? Barkatuko didazu baina ezin izan nuen zurekin gelditu, beldurrak gainditu ninduen eta izututa ibili naiz honantz etortzeko. Aluzinatzen ibiliko zinan, ez da?

– Lasai, nire nahia bete dut, ezagutu dut beste mundu hori eta ez dakit aluzinatzen edo gauzen izpiritua ikusten ibili naizen. Baina, bada-kizu? Ikasi dudana zera da: mundu hori gure barruan dagoela, kanpoan, izadian, estimuluak daudela eta zuek diozuen mundu horretara iristeko, gure barruan, hori ikusteko, gestionatzeko dugun ahalmenari esker iristen garela. Hau indartu behar dugu Garbiñe! Konta, esaiozu Martini, poztu egingo da, ziur nago! Gure barrua erabat aberatsa dela!

Handik aurrera, norbere burua ezagutzeko asmoz, psikologiko, arnasketa, gorputz eta irudimen ariketa franko egin omen zituzten ingu-

ru hartako gazteek. Eta Anboto ingurura ere maiz joaten omen ziren. Han, elkarrekin, askatasunez betetako irrintziak botatzen omen zituzten, nahi zituzten irudiko basoetan pasieran ibiltzen omen ziren eta bertatik, isiltasunaren hutsune eta bakearen indarrez beteta bueltatzen omen ziren, era horretara egunerokotasunak beste perspektiba bat hartzen omen zuen eta.



■ E. maila • 2. saria

MAIDER GARIN

Pekatxoak

Beti nahi izan dut tatuaje bat. Ikastolan, marrazki bat egiten nuen aldiro, beti egiten zuen ihes kolore marratxo batek horri zuri horretatik nire eskura. Idazten ikasi nuenetik, hitz berezi bakoitzari bere lekutxo gordetzen nion ezker eskuan, ezabatu, eta ia ikusezin bihurtzen zen aldiro erreparatuz, hitzak niretzat gordetzen zuen xarma galtzen zen arte. Denborak aurrera egin, eta erantzukizun gehiago hartzen joan nintzenez, egin beharreko kontuak, ez ahazteko, eskuan idazten hasi nintzen. Eta berdin, maitemintzen ninduen irribarrearen jabe zen horren izenarekin. Kontua da, beti izan dudala arrazoiren bat zirriborroren bat marraztua eramateko.

Baina patata zorroetan etortzen ziren “kalkamoniak” ez zaizkit inoiz eramangarri iruditu. Egia da bat eskuratu orduko iturri baten bila hasten nintzela, ahalik eta azkarren gorputzeko zatiren batean ipintzeko. Baina, irudi haiek ipintzeko operazioa bukatu, eta begiratu orduko, aspertzen ninduten, azkazalekin ahalik eta fuerteen harramazkatzen nituelarik, azaletik desager zitezten. Ez zuten sentimendurik, esanahirik niretzat.

Tatuajeen arazoa, ordea, betirako direla da, ezin dira ez harramazkaka, ez sukaldeko xaboiarekin kendu. Eta sentimenduak tatuatzen hasi izan

banintz, hizki, kolore eta forma ezberdinez beteriko gorputza izango nuke. Eta gauza gutxik gordetzen dute euren esanahia betirako, denborak esanahiak nahasten baititu. Eta horiek azalean eraman nahi izan behar dira. Eta gogorregiak izan daitezke.

Irribarreak, besarkadak, begiak eta begiradak, hitzak, melodiak, muxuak ... gauza txikiek duten xarma eraman nahi nuen; iragana, oraina, eta etorkizunean inguratu nazaketen pertsonak tatuatu, eurek behin izan zuten garrantziaz ahaztu ez nedin, eta arrazoiren batengatik garrantzia izatera iritsi gabe alde egin zuten horiek gogoratu; udara eta negu bakoitzean kolorez aldatzen zen larruazalean, inoiz aldatuko ez zen kolore bat gorde. Hori guztia gordetzen zuen hitz bat ezagutu nuen. Bere esklabo izatera iritsi arte intrigatu ninduen.

Hitz horrek irribarrerik tristeena, eta malko alaiena definitzen zituen. Hitz horren usaina haizeak hemendik hara mugi zezakeen, azalean itsasten zen aldiro, hotzikara bat sortuz. Belarrian kilimak egin zitzakeen hitz hori entzuteak; eta zauriak, hitz hori ahoskatzeak: mingaina urtu zezakeen, ahots-kordak eten, orbain ikusezinak sortuz. Odola irakiten jartzen zuen hitza zen, lasaigarri, edo dinamita izan zitekeena. Adberbio, aditz, adjektibo. Inoiz itzaliko ez zela zirudien hitza, izarra. Edo hori iruditu zitzaidan bere izena esan zidan segundo hartan. Segundo bat aski delako bere izena entzuteko. Oihartzunak, ordea, luze iraun dezake.

Ezpainak gure basoetako ardoak nahastuz busti genituen lehen gauean. Eta, geroztik, goizeko kafea bere ezpainetan hartzeak irekitzen zituen nire egunak. Bere gorputzaren zentimetro bakoitza erreparasatu nuen, bere kilimen erregina bihurtu arte, eta milimetro bakoitza dastatu, debekatuta zeuden fruituen zapoak ezagutuz. Zeruko izarrak aurkeztu zizkidan, eta konstelazio berriak aurkitu genituen; melodia berriak asmatzeko inspirazio bihurtu zen, nire ahotsaren entzule. Beti lehenengo ilaran. Nire iraganaren jabe egin zen, bai beldur, oroitzapen, min, ahaztutako istorio, lehen aldi... ni izatera iritsi arte. Ni baino hobeto gogoratzen zen noiz gertatu zen gurasoena, noiz joan nintzen azken aldiz zinera (bera pelikula zale amorratua baitzen, eta nik pelikula horietaz hitz egiten zuten liburuak irakurtzen nituen, amaiera guztiak desilusionagarri egiten zitzaizkidan), eta egindako akatsez. Beldur zen, akats horiek berriz gertatuko ote ziren,

eta behin eta berriz errepikatzen zizkidan. Baina, hor zegoen, amildegi batetik erortzeaz nengo bakoitzean, niri besotik heltzeko.

Txakurrei nien beldurra desagerrarazi zuen; bere maindire azpian sartu nahi banuen, bere etxera iritsi orduko, ni usaindu, eta nirekin jolas-teko gogoaz sartzen zitzaion txakurraren plakajea zain bainean. Elkarren boomerang bihurtu ginen, haizeak norabidez aldatzen bazuen, ahalik eta urrunen bidal nezakeen, baina beti itzuliko zen, 200 kilometro orduko zebilen haizearen aurka, ni ere itzultzen nintzelako. Gu eta gu pikutara botatzearen arteko oreka hori aurkitu genuen. Maitemindu egin ginen.

Unibertsoak, ordea, gure aurka konspiratu zuen, taupada, bidaia, begien kliskada, arnas, irribarre, begirada, bizitza, eta ordura arte existitu ere egiten ez zirela uste nuen sentimenduen norabidea aldatuz. Segundo gutxi batzuetan. Munduarengandik ezkatututa behar genuen segundo horietan, eta ez abiaduraren mugaren limitean, euriak bira bakoitzeko gehiago bustitzen zituen bi gurpilen gainean, hegan egiteko zorian; hegan egin baikenuen.

Begirada galdurik gelditu zitzaidan. Eta bera kamioiaren azpian galdu zen. Ikusi nuen azkeneko irudia atzerako ispiluaren bere begien isla izan zen, distirarik gabeko begiak, beldurrez beteak. Begiak itxi behar nituela ulertu nuen. Airean atera ginen, baina bera lurreratzeaz ahaztu zen: bere hezurak nola puskatzen ziren, eta bere azalaren jostura nola desegiten zen sentitu baino nahiago izan zuen beste zeruren batera joan, izar edo aingeru bihurtu. Nik hegan jarraitu nuen, eta lurreratzeko ordua iritsi zenean, kaskoaren kristalak, mila zatitan egin, eta betazalak ebaki zizkidan. Ez nintzen gertatzen ari zenaz jabetzeko gai, bere ahotsa entzutean irekiko nituela begiak erabaki nuen, gaua bere ondoan igarotzen nuen hurrengo eguneko goizetan amets gaiztoetatik esnatzeko bezala. Oraindik ez ditut ireki.

Lehen aldiz, iluntasunean esnatu nintzen. Entzuten hasi nintzen ahotsak hasi ziren koloreak sortzen: hemendik hara lasterka zebiltzan medikuen bata zuriak, bost solairu beheagoko ebakuntza gelan bihotzaren taupadak azkartzen ari zitzaizkion gizonaren odol gorria, edo lau beheagoko garrasika jaio berri zen neskatxari jarritako lazo arrosa, pasiloko kafe makinak tantaka botatzen zuen kafe marroia, eta bere hutsunearen kolo-

re beltza. Amaren nekearen usaina sumatu nuen, beldurrak eragiten zizkion hotzikaren dardarengatik airean sortzen zen haize-hotzaren korrontea, eta nire eskuari eutsita zegoen eskuaren goxotasuna. Ohearen beste aldean, bere buruari etengabe eta hor egon beharko lukeen ala ez galdetzen zion aitaren malkoen hoztasuna; azken aldiz lotan ikusi ninduenetik nire lo aurpegia ez aldatzeak eragiten zion harridura, baina begiak irekita ze itxura nuen ahaztua zuenaren damua, edozein momentutan irekiko ziren begi horiek begira ziezaioketen moduaren beldurra. Eta nire mugimendu txikiak inguruan sortu zuen lasaitasuna.

Zentzumenak berreskuratzen joan nintzen, pixkanaka. Inoiz baino indartsuago egin ziren; hori gertatzen omen da zentzuren bat galtzen denean. Zerbait xuxurlatu nuen, ingurua aztoratzeko garrasi ahul bat. Gela besarkadaz bete zen, irribarrez, medikuz eta erizainez. Egin zizkidaten frogetatik ondorioztatu ahal izan nuen ze egoeratan nengoen, zein arrisku utzi nituen atzean, zenbat urradura nituen, eta begiak irekita ere ez nuela ezer ikusiko.

Medikuek alde egin zutenean, ordenarik gabeko mila hitz eta ahots hasi ziren nahasten, eta nahasmendu horretan galdu nahi izan nuen, parentesi artean zegoen isiltasunaren beldurratik. Aho baten doinuaren falta sumatzen bainuen. Baina, nire begiek bezala, bi egun zeramatzan itxita bere ahoak, baita bere belarriek, bere sudurrak, bere betazalek, bere eskuek eta bere bihotzak ere. Trikimailu merke eta benetako magiaren arteko muga gainditu zuen, sentimendu bihurtu zen.

Taupadak azkartzen hasi ziren, bakoitzak oroitzapen bat ekarri nahi izan balit bezala. Hurrengoaren ondorengoan pentsatu beharrean geratzen zitzaidan atzeko guztiarekin arnastuz. Noizbait zoriontsu izan garenean, beldurrik handienak atzera begiratzean etortzen direlako; behin ahoan izan genuen irribarre perfektu hura, puska ezina, eta muxu gorriak, moflete borobiletan, sortzen zituzten momentuak. Beldur nintzen, trumoi beldur, ez nintzelako alde zurretik ohartaraziko ninduten tximistak ikusteko gai izango. Ez nuen dantzan jartzen ninduten bere musikazko begien doinurik entzungo, eta begiraden indarraz ez ahazteko behar nituen.

Edertasunari ere beldur nion. Hondar artean, olatuen usain gaziak bustitzen ninduen bitartean, ezagutu nuen magiari; itsasoaren aurrean

biluztu zenean. Gaueko argitasun txikiek janzten zuten bere azala, distira bereziak hartuz irristatzen zen ur tanta bakoitzarekin, haizearen ufadekin nahastuz; edozein momentutan apurtuko zela zirudien edertasuna. Orain, tristuraren barruan aurkitu behar nuelako. Tristura zelako gauean nire ohearen ertzean etzango zena; idatzi bitartean begiratuko ninduen, loak hartu arte; izara azpian gordeko zena, ni besarkatuz; gauean harra-mazkaka esnatuko ninduen, orban ikusezinak sortuz; eta, berriro lo hartu artean, bere izena xuxurlatuko zidana; eta, egiteari utziko balio, mila aldiz egitera zigortuko nuen.

Eta arazoei. Bere perfekzioaren inguruan arazoak ez zirela inoiz hurbilduko zirudielako. Nahiz hurbiltzen zitezkeen; eta askotan. Baina bera gertu izate hutsarekin garrantzia galtzen zuten. Arazoa berak sortu bazuen, ordu bat pasa ezker, bihotza garagardoz bustitzen zitzaidalako, mozkortu egiten ninduten edozein momentutan lehertuko zirela ziruditen begiek. Gainerako arazoak salbuespenezko egoerak ziren, salbuespenezko irribarre batekin desagerrarazten zituenak; ez zuelako hortzak erakusteagatik egiten, hainbat egunez gorderiko zoriontasunaren ispilu zelako. Eta arazoak, zoriontasun horretan, lekuz kanpo zeuden. Eta beldur nintzen, zoriontasunik gabeko errutina bilakatuko ote ziren.

Baina beldurrei nahasmena eman behar zaie. Hitzekin deszifratu, denborak esaldi amaierako puntua jartzen duen arte. Bihotzaren taupada bakoitza sentitu, indartu, beldurrek azkartu ez ditzaten. Eta nik, gorrotatu egiten nituen, bizirik nengoela sentiarazten zidan guztia bezala. Maitasunaren indarra jasanezina bihurtu zen.

Maitatzeari utzi nionean gertatu zen. Ezer ez ikusteak munduarengandik urrunduko ninduela sinesten hasi nintzenean. Argazki bat ekarri zidaten kolorerik gabeko ospitaleko gelara. Usainik gabeko argazki bat, tenperatura berdina mantentzen zuena, eskuekin hartu edo behatzekin erreparasatu nezakeen arren, ukiezina, eta ahotsik gabea. Izoztutako momentu bat gordetzen zuena, baina ikustezina niretzat. Amorrua; begiak atera nahi izan nituen. Eta, hala ere, ohe ondoko mahaitxoan utzi nuen argazkia, jakin-mina sortzen zidalako, ahaztuta neukan momenturen bat gordeko zuenaren beldurra.

Gelan amaren usaina bakarrik sumatzen nuen batean, argazkia eman nion; zer ikusten zuen jakin nahi nuen. Bost urteko neska baten argazkia zen. Txokolatezko tarta bat janez, bere urtebetetze egunean, sudurra zikinduta, baina printzesa bat zela sentituz; ez zion kamerari begiratzeko, baina irribarrez beteriko begi handiak atzeman zitezkeen. Eskutan, aterki bat omen zeukan, etxe barruan egonagatik bere oparia erabiltzea inork eragotzi ezin izango balio bezala. Aterki berde eta hori hartaz gogoratu nintzen, euriarengandik hainbat aldiz babestu ninduen aterkiak, eta hai-zeak puskatu zuen egunean egin nuen lasterkatxoaz, amaren aterkiaren babespean sartzeko. Aterkirik gabe, baina oraindik babesten jarraitzen ninduen.

Isiltasuna nagusitzen zen orduetan, aita gelan zegoela sumatzen nuen. Ez zuen bere ahotsaren dardarekin isiltasuna puskatzeko ausardiarik. Urteak joan ziren arren alde egin zuenetik, ni mundutik ihes egiteko zorian nengoela jakin zuenean sentitu zuelako bakardadea. Eta itzuli izanak beldurtzen zuen. Nire beldurrak bereekin nahastu behar nituela erabakiz, eta, bera ere, egun hartan, nire zoriontasunaren zati zenez zoriontasun hori sentitzeko gai izango zela sinesten nuelako, argazkia eman nion. Baina erantzunak hankaz gora jarri ninduen, ez erantzun zuelako soilik, baizik eta ama, bera eta ni agertzen ginen argazki hura ez zuela inoiz ikusi esan zidalako. Udara batean ateratako argazkia zen, praka motzak, eguzkitako betaurrekoak, eta hondartza. Hondartza gorrotatzen nuela gogoratu nuen, urak area nire oinetan nola itsasten zuen sentitzeak haserretzen ninduen. Nik ezer esan aurretik, hondartza gorrotatzen nuela esan zidan, ama eta bera hondartzara joan ginen batean alde egin nuenean ohartu zirela hortaz. Hasiera batean, ez zirela kezkatu, baina denborak aurrera egin ahala, urduritzen joan zirela. Hondar zati bakoitzaren azpian miatu zutela, hondartza guztia aztoratuz. Bi ordu beranduago, aitona-amona batzuekin limoizko izozki bat jaten ikusi ninduten arte. Gal-duta egon arren, beti jakin izaten nuela nork zainduko ninduen.

Ez nintzen gogoratzen argazkia nork eman zidan, baina magian sinesten hasi nintzen. Ikasketekin itota egon arren, ahal zuten guztietan bisitan etortzen ziren neska-mutil haiek atea noiz joko zain egon nintzen. Haietako bakoitzak zer ikusten zuen kontatzea nahi nuen. Argazki guztiak irriba-

rrez beterik zeuden: selektibitatearen azken eguneko mozkorraldia, gaintzeko ozta-ozta ibiliko ginen arren, gaua eta musika tripako min horren aspirina zelako; eta hurrengo eguneko erresaka-jeneralak, benetako aspirina behar izaten zutenak, baina inoiz ez sendaezinak. Haserrealdiak, despedidak, hondartza, mendia, lehen aldiak konpartitzea, arropa erostera joatea, elkarri ilea moztea, besarkadak, muxuak, esperimintatzea, konpartitzea, laguntasuna gau eroetan nahastea, musika, elkarrekin lo egitea, malkoak, eta beti, norbaitek, horiek lehortzeko, eta, makillajea beriz txukun jartzeko zituen "klinex"ak.

Nekea handia zen arren, arnastean mugitzen nuen airea handiagoa zela ohartu nintzen; eta indarra, ezintasun garaietan, pausu bat gehiago emateko gai garela sentiarazten gaituzten gauzatxo txikien xarma dela. Begiak denbora gehiegiz itxita edukitzeak ez zuela imajinazioa desgastatzen; eta oroitzapen distiratsuenak gogoratzeko, ahaztuta ditugula sentitu arren, beti agertzen dela arrazoiren bat. Sentimenduz beterik, eta inguraturik nengoelako. Argazkiek gordetzen zuten edertasuna izugarria zen, ikusteko aukerarik izango ez nuena, baina argazkiek gordetzen zutena kontatuko zidaten pertsonen inguraturik nengoen, eta maitatua izatearen kolorea duen lorea da lorerik ederrena. Eta kolore hori ezin hobeto ikus nezakeen.

Trumoiaren antzeko ezta denburuan, bere hutsunearen burbuilek sortzen zituztenak. Baina nire gorputza dardarka jartzeari utzi, eta kilimak eragiten hasi ziren. Berak nire barruan jarraituko balu bezala, irribarreak barru-barrutik eraginez. Inoiz ihes egingo ez zuen zoriontsu izateko arrazoi bat izaten jarraituko zuelako. Pekatxo bat nire azalaren gainean. Benetan garrantzitsuak egiten zaizkigun sentimenduak bezala.

Mantangorri bat tatuatu nuen. Mantangorriak ere puntutxo beteta daudelako, euren bizitzetatik, lehenago sentitu gabeko sentimendu berezi bat, erreakzio kimiko bat, eragiten duen norbait igarotzen bada, sentimendu hori betirako geratzen delako, erreakzio kimiko bat eragin duela, pekatxo bat sortu azalean. Eta hegan egiteko arrazoiak izan behar zuelako pekatxo horiek gainean izateak. Eta nik, sentimendu guzti horiekin, hegan egin nahi nuen.

Teodoro Hernandezena.
XI. Ipuin Lehiaketa,
Zizurkil, 2013

